



Ander Plazaola: «Gurean, 3 talde profesional daude. Movistar eta Cajara joatea ia ezinezkoa da». ▶20

Gabi Basañez getxoztarra Madrileko Auzitegi Nazionalean epaituko dute urriaren 19tik aurrera, Askapenako beste lau kidegaz batera. ▶2



hiruka

Uribe Kostako astekaria



34. zenbakia

2015eko
urriaren 15etik
urriaren 21era arte

Akabuko martxea

Mikel Etxezarreta artzain zegamarrak eta Eli Arrillagak 250 buruko artaldea gidatu dute Gipuzkoatik Uribe Kostara. ▶9



«Errudunak zigor ditzatela gura dut»

Jon Paredes Txiki zenaren anaia Diegok berbaldia eman du Sopelan, Ahaztuak elkarteak gonbidatuta.

1975eko irailaren 27an fusilatu zitu-
tuzten Jon Paredes Manot Txiki eta
Anjel Otaegi Etxeberria ETako ki-
deak, zein FRAPeke kide Jose Luis
Sanchez Bravo, Ramon Garcia Sanz

eta Humberto Baena Alonso; herio-
tza-zigorra ezarri ostean. Ordutik, hi-
labete bi ere ez ziren igaro Francis-
co Franco diktadorea bere ohean hil
zen arte. ▶16-17

SAKONEAN PLENTZIA

Placentia, Amerikako Plentzia

Sabino Laucirica plentziarra
Placentia eta Plentziaren arteko
loturak ikertzen hasi zen orain
dela 10 urte. Ondorioz, *Heritage*
Award saria eskaini diote.

Euskal Herriko arrantzaleak balea eta
bakailao bila joaten ziren Ternuara (Ka-
nada) XVI. mendean. Han, Placentia
izeneko herri bat dago, Plentziako antzi-
nako balea-ehiztariak sortua. ▶22-23

Loiuko aireportuan ordutegiak zabaltea
aztertzen dabil AENA.
Erandioko Udala ez dago
ados, zaratagatik. ▶5

Gazteluetako ustezko sexu-abusuen ikerketa
amaitutzat eman du Aita
Santuak. Salaketa aurrera
doa epaitegian. ▶6

Umeen Bizikleta Festa
antolatu du domekarako
Elkar Kirolak taldeak.
4.500 lagun baino gehiago
espero ditu. ▶10

Sopelako Irakurle Kluba
hilaren 15ean itzuliko da
Hobe isilik lanagaz;
UKITXek Uxue Alberdi
ekarriko du Algortara. ▶11

Getxo

«Espainiar Estatua ez da inor gu epaitzeko»

Gabi Basañez getxoztarrek Madrilera joan beharko du urriaren 19tik azaroaren 2ra arte iraungo duen epaiketari aurre egiteko, Askapenako beste lau kidegaz batera.



Urte bi eta erdi eman zituen Basañezek espetxean, epaiketaren aurretik.

IKER RINCON MORENO ►

Urriaren 19an Walter Wendelin, Aritz Ganboa, David Soto, Unai Vazquez eta Gabi Basañez Askapenako kideen kontrako epaiketa hasiko da Madrilera Auzitegi Nazionalan.

Zelan egingo diozue aurre epaiketari?

Akusazio gehienak onartzen ditugu, bat izan ezik. Onartzen dugu manifestazioetan egon garela, artikulatuak idatzi ditugula, prentsaurrekoak eman ditugula, brigadak antolatu ditugula beste herrialde batzuetara, internazionalismoa sustatzeko kanpoan dabilzan Euskal Herriaren Lagunak sustatu eta koordinatu ditugula... Horri aurre egingo diogu esanez lan militante hori garatu dugula, eta aukera uzten badigute, hori garatzen jarraituko dugula, harro gaudela egin duguna-

gaz, eta guretzat lan hori beharrezkoa dela Euskal Herri aske baterako. Hala ere, atxikitzen zaigun beste akusazio bat da ETarekin kolaboratu dugula, eta hori ez zaio inori buruan sartzen. Euskal Herrian lan publiko bat garatu dugu, eta denek dakite ez gara ETakoak. Bestalde, Madrilera joatera behartuta ikusten dugu geure burua. Atxilotu gaituzte, espetxean eman ditugu urte 2 eta erdi, 300.000 euro eta pasaportea kendu dizkigute, eta as- tean behin sinatzera behartuta gaud- e; baldintza batzuen pean gaud- e aske, eta oraindino epaiketa egin bari- rik. Horregatik, guk horri buelta eman gura diogu; ez diogu inolako zentzurik ikusten haiek gu epaitzeko ez dira inor.

Internazionalismoaren kontrako epai- ketatzat jo duzue.

Bai, argi dago epaiketa politikoa dela. Esan bezala, edozein militante poli- tikok normaltasun osoz garatzen di- tuen jarduerak egin ditugu guk; edo gutxienez eskubide zibil eta politikoak zaintzen diren herrialdeetan, politi- ka egitea eskubidea delako. Hemen, guri, aurretik beste batzuei eta ondo- ren besteei, ukatu eta ukatuko zaikiz- gu eskubide horiek. Pulstu neofaxista bat dago Espainiar Estatutik Euskal Herrian garatzen diren askapenerako politika guztiak gelditzeko.

Zergatik dio beldurra Espainiar Esta- tuak internazionalismoari?

Alde batetik, eraldaketa soziala nahi duen multzoak beti aldarrikatu due- lako internazionalismoa, hau da, za- palduen ekimena izan da, indarrean dagoen planteamenduari buelta ema- teko, eta, nolabait, nazionalismo pa- triotiko-kapitalista horri erantzuteko.

Bestetik, Espainiako eta Frantziako estatuekiko konfrontazio historikoan, Askapenaren 28 urtean garatu izan di- tugun gauzek ere eragina izan dute. Urtero 150 pertsona inguru joaten dira prozesu askatzaileak garatu dituzten herriak eta langile-borrokak ezagutze- ra. Han ezagutu eta hemen ezaguta- razi. Bide horretan, konplizitate asko sortu dira, eta sinergia horrek kalte handia egiten die zapaldu nahi gaituz- tenei.

Hainbat dinamika jarri dituzue mar- txan babesa jasotzeko. Zelan balo- ratzen dituzue ekimen horiek denak?

Itzela izan da, ez genuen pentsatzen horren erantzun zabala izango zuenik. 25 herrik baino gehiagok garatu dituz- te Euskal Herrian Espainiar Estatuaren kontrako epaiketa horiek, modu eta formatu oso diferenteetan. Era berean, atzerriko hainbat hiritan giza eskubide arloko juristak batu dira, eta gutxienez nazioarteko 10 hiriburu handitan jen- detsuak izan dira aurrera eroandako ekimenak. Ikuspegia aldatu nahi izan dugu; ez dauka inolako logikarik pen- tsatzea gu zapaltzen gaituen Estatuak gu epaitu gaitzakeela, ez duelako ino- lako oinarririk. Hortaz, lortu dugu psi- kologikoki eta politikoki planteatzea geuk epaitu behar ditugula eurak.

Zer-zelako garrantzia du gurean in- ternazionalismoak?

Historian egiten dugun irakurketan, zentrala da internazionalismoaren beharra. Herrien askapen-prozesuetan eta langileen, nekazarien eta ikasleen borroka potoloetan beharrezkoa izan da internazionalismoa. Baina horren gainetik, gaur egun badago beste ele- mentu bat: globalizazioa. Hau da, ka- pitalismoak lortu izan du ekonomian eta kulturen mundu osoan bere pro- posamena sarraraztea, eta horren au- rrean, inoiz baino beharrezkoagoa da klase zapalduen artean konplizitateak sortzea.

Aurrera begira, zer gertatuko ete da?

Internazionalismoak indartuta atera behar du hemendik. Ez dago dudarik jarraituko duela: Askapena legez kan- po utzi arren, badaude bestelako gu- neak. Gu kartzelara gaitzakete, Aska- pena legez kanpo utz dezakete, baina aurrera jarraituko du. ◀



PINTXOAK

**OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ**

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Frutu lehorrak - Aldizkariak - Litsxarriak

Orduña Mendatea 1

Tf. 94 430 22 13

GETXO



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA

Tf. 94 430 64 93

Getxo

Diseinu grafikoaren erakusleioa, Areetan

Ekusadiko Diseinugileen Elkarteak (EIDE) Getxo Grafik Windows izeneko ekimena jarri du martxan, Getxoko Udaren laguntzagaz. Horregaz batera, bertoko diseinugile grafikoei deia egin diete udalerriko hainbat dendaren erakusleioak apaintzeko, euren lanak aurkezteko aukera emanez. Azaldu dutenez, ekimenaren helburua hurrengo hau da: «Areetako erdigunean hutsik dauden zenbait merkataritza-lokal, aste batzuez tokiko diseinugile grafikoaren lanaren erakusleio bihurtzeko». Hala, iragarri dutenez, erakusleioak baliogarriak izango dira Getxoko kultura- eta sorkuntza-industriakaz duen identifikazio estrategikoa indartzeko, eta Areetako erdigunea dinamizatzeko. Ekimen horrekiko interesa duten diseinugileek eta diseinu-ikasleek hilaren 22ra arte aurkez-



ditzateke euren proposamenak. Ondoren, EIDEko diseinugile grafiko bik, EHUko Arte Ederretako Fakultateko ordezkari batek, Getxolan-eko teknikari batek eta Getxo Enpresa-ko teknikari batek osatutako epaimahai teknikoak aukeratuko ditu Getxoko kaleak jantziko dituzten lanak. Lan horiek guztiak azaroaren 16tik urtarrilaren 15era bitartean egongo dira ikusgai, Areetako hainbat saltokitako erakusleioetan. ◀

Ondarearen gaineko bisitetan parte har daiteke oraindino

Azken dira Ondarearen Europako Jardunaldiak. Horren harira, burdina oinarri hartuta, ibilbide bi antolatu dituzte Getxon. Lehenengoak «Burdina eta bere garrantzia Abran» du izena, eta hilaren 24an eta 25ean izango dira hurrengo irteerak. Bisitak 11:00etan hasiko dira Bizkaia Zubian. Horren inguruko azalpenaren ostean, taldea itsasoratu, eta Abra itsasadararen bokalean aurrera egingo du bisitak. Bigarren ibilbideak Begoñako galeriak izango ditu jomuga; horregaz, Horacio Echevarrietak eskatuta, Ricardo Bastidak 1919an egindako eraikin horretara bisita egingo dute. Ibilbideak hilaren 25era arte egin ahal izango dira.

Transbordador de Vizcaya enpresak, bere aldetik, ekimenagaz bat egin, eta urriaren 22rako eta 29rako berbaldi bat antolatu du. ◀

info +: getxo.net

Erromerietan dantzaren egiten ikasteko doako ikastaroak, Getxon

Udako festetako dantzaldi guztien ostean, datorren urtekoak prestatzeko ordua heldu da. Hori horrela, Getxoko Itxas Argia Dantza Taldeak erromerietan dantza egiten ikasteko tailerra antolatu du hasi berri den ikas-turterako. Eskolak zapatuetan izango dira, hilaren 17tik aurrera, 12:00etatik 13:30era arte. Ikastaroa doakoa izango da, eta horretan parte hartzeko, ez da beharrezkoa aldeztu aurretik izena ematea; arduradunek azaldu dutenez, klaseko lehenengo egunean jasoko dituzte parte-hartzaile guztien izenak. Ikastaroak apirilaren 23ra arte iraungo du. Itxas Argia Dantza Taldeak Urduñako Mendatea kaleko 17. zenbakian (Getxo/Andorra Mari) duen egoitzan emango dituzte dantza-eskolak. ◀

harremanetarako: itxasargia50@gmail.com
facebook: Itxas Argia
twitter: @ItxasArgiaDT

SALÓN PRAKTIKA DE GARAÍKIDEEN PRÁCTICAS ARETOA CONTEMPORÁNEAS

PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS AREETAKO BELTOKIA PLAZA

12-15.11.2015

ENTRADA GRATUITA DOAKOIA SARRERA

2015
GETXO
ARTE

ORGANIZADORES
ANTOLATZAILEAK



PATROCINADORES
BABESLEAK



COLABORADORES
LAGUNTZAILEAK





Maratila

ITZIAR
LARRAZABAL GARDEAZABAL
ELAko eskualde-arduraduna

Urriaren 24an zatoz Bilboko Alternatiben jaira

Bizi!-ko lagunek 2013an jarriz zuten mugarrria. Egun batez Baiona alternatiben herrixka bihurtu zuten. Natura eta gehienon bizitza hondamendira daraman kapitalismoari eguneroko erabakien bidez aurre egiteko moduak erakutsi zizkiguten Baionan: zer jan, nola ekoitzi, dirua nola erabili, non gorde, nola sortu txanpon soziala, nola mugitu, nola sortu eta eskuratu...

«Ez zaigu gustatzen dagoena, esaten du jendeak, baina ez dago alternatibarik. Baina, alternatibak sortzen ari dira han eta hemen. Zeri deitzen diogu alternatiba? Helburua bizitza jasangarrian, bizitza bizigarrian, bizitza burujabea duten proiektuak dira alternatiba. Mozkina eta kapitala helburu izan ordez bizitza duina eta iraunkorra helburu dutenak. Horrelakoak badaude, sortzen ari dira herri esberdinetan baina jendeak ez ditu ezagutzen eta sistemak ez ditu ezagutarazi nahi.

Alternatiben Egunaren helburua litzateke alternatiba horien saretzea, eta erakustea, benetan gure esku, eguneroko erabakietan baditugula beste modu batera kontsumitzeko moduak, badugula beste banku eredu batzuk (banka etikoa), energia berriztagarrien kooperatibak, bertako produktuak eta garaiak, ekologikoak kontsumitzeko sareak... Egun hobetan egin nahi duguna da:

–Alternatibadesberdinenazokak alternatibak erakutsi eta saretzeko.

–Alternatiben inguruko trebakuntza hitzaldi, mahai inguru, bideo forum, tailer, dinamika, antzerki eta halakoen bidez.

–Animazioa, festa giroa, txosna, kontzertu, bazkari, garagardo artisau azoka, jolasak... ikusteko alternatiba ez dela sakrifizioan oinarritutako bizitza gogorra, baizik eta bizitza hobea eta alaia». ◀

Getxo

Birziklatu beharra azaleratzeko kanpaina

Hondakinen gaikako bilketa eta birziklatzea indartzeko egitasmoa abiatu du Getxoko Udalak, hilaren 24ra arte.

Hondakinak gaika batzeak eta birziklatzeak duten garrantziaz herritarrek jabetzeko asmoz, kalera aterako da Udalak, Ecoembes eta Ecovidrioren laguntzagaz. Informazio- eta sentsibilizazio-kanpaina berri bat izango da, «Hondakin bakoitza dagokion edukiontzira! Getxo birziklapenaren alde» goiburupean. Hala, birziklatzeak alor partikularrean, sozialean, ekonomikoan eta ingurumenean dakartzan abantailen inguruko informazioa emango zaie herritarrei, edukiontzi desberdinetan bota daitezkeen hondakinen tipologia guztia zehazteaz gain. Postontzietan diptikoak banatzeaz gainera, karpa bi ipiniko dituzte informazio hori guztia emateko, hain-



laz sortutako hondakin guztien %21,55 birziklatu zen Getxon.

bat tailer eta jolas antolatzeagaz batera. Informazio-gune horren egutegia honakoa izango da: urriak 15, eguena, 16:30etik 20:30era Itzubaltzeta/Romoko Santa Eugenia plazan; urriak 16, barikua, 10:30etik 14:30era Algortako Bidezabal plazan; urriak 17, zapatua,

10:30etik 14:30era Algortako Telletxe plazan; urriak 22, eguena, 10:30etik 14:30era Areetako Eskoletako plazan; urriak 23, barikua, 17:00etatik 21:00etara Areetako Xake plazan; eta urriak 24, zapatua, 10:30etik 14:30era Algortako San Nikolas plazan. ◀

Lurzati bat salduko du Udalak etxebizitza libreak eraikitzeko

Udalak lehiaketa publikoa zabaldu du, Algortako Venancios aldean etxebizitza libreak sustatu eta eraikitzeko lurzati bat saltzeko. Eskaintzak aurkezteko epea abenduaren 7ra arte egongo da zabalik. Aipatutako lur-eremuak 1.250,8 metro koadroko azalera du, eta Udalak ez da horren ugazabakarra. Azaldu dutenez, Udalak horren portzentaje bat erosi zuen bere garaian, «hirigintza-kudeaketan sorburu duen nahitaez laga beharragatik». Hori horrela, udal lurzorua onduaren zati bat da.

Udalak hitzarmena izenpetu du lurzatiaren gainontzeko jabeakaz, udal erakundea arduratu dadin haren esleipen-prozeduraz. Aipatu dutenez, hiri-antolamenduan orubea ez da espezifikoki kalifikatzen herri-horridura izateko edo babes publikoko erregimen bateren pean jarritako etxebizitzak eraikitzeko lurzatiatzen. Horregatik, libreki «besterendu» daiteke, lehiaketa publikoaren bitartez.

Jakinarazi dutenaren arabera, 2.588.093,10 eurokoa izango da (zer-



gak ez daude zenbateko horren barruan) eskaintzen gutxieneko prezioa. Saldutako zatiagaz lortzen dituen diru-sarrerak Udal lurzorua onduaren helburuetara zuzenduko ditu Udalak.

Eduardo Andrade PPko zinegotziak adierazi duenez, Udalak egiten duen «auzotarren jabegoko» lurzoruaren laugarren salmenta da, Kortiñeko bi eta Aixerroto beste baten ondoren. Bere ustean, Getxo Antzokia eta Romo Kultur Etxea eraikitzeko prozesuan izandako etengabeko dirujarioari erantzuteko erabiliko dituzte salmenta horiek guztiak. ◀

Udalak 49.300 euroko laguntzari uko egin diola dio EH Bilduk

Bolueko hezegunea birstutu eta hobetzeko Eusko Jaurlaritzak Udalari emandako 49.300 euroko diru-laguntza baten lehen ordainketa itzultzea erabaki du Udal Gobernu Taldeak dekretu bidez, EH Bilduk jakinarazi duenez. Laguntza hori 2012ko urrian ebatzi zen, eta Udalak birritan eskatu zuen epea luzatu ziezaioten, «beharrezko lizentziak eskuratzeko zailtasunak omen zituelako», azaltzen du koalizio abertzaleak. Hala, lehenengo luzapena Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak onartu zion; bigarrena, ordea, ez. Ondorioz, Udalak 2012an kobratu zuen diru-laguntzaren lehen zatia (3.944 euro) itzuli behar izan du. Hori horrela, EH Bilduk uste du lehen ordainketa hori itzuli badu, Udalak diru-laguntza osoari uko egin diolako izango dela. Beraz, koalizioak hainbat zalantza argitzeko eskatuko du, berbarako: zer gertatu den proiektuagaz, zein egoeratan dagoen, beste proiekturik dagoen martxan, informazio guztia emateko asmoa dagoen, eta zergatik egin dioten uko laguntzari. ◀

Leioa

Ipuin-kontalariak prestatzen

Hitzaren Zuhaitza proiektuagaz, umeen artean bake-kultura sustatu gura dute. Izena emateko beharrezkoa da Leioan errolatuta egotea.



Aurreko ipuin-kontalariei batuko zaizkie partaide berriak. © LEIOAKO UDALA

Hirugarren urtez, Hitzaren Zuhaitza izeneko egitasmoa egiten jarraitzea erabaki dute Leioako Udalak eta Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroak (GEUZ). Horregaz, herriar boluntarioen sarea bultzatu gura dute, ipuinen bidez, umeei bake-kulturaren baloreak transmititzeko eta umeak batera lantzeko, berbarako: indarkeriarik eza, berdintasuna, elkartasuna, aniztasunarekiko errespetua, gatazken ebazpen baketsua, eta abar. Proiektuan izena emateko aukera egongo da azaroaren 2ra arte. Horretarako, beharrezkoa da Leioan errolatuta egotea.

Ipuin-kontalari izan gura dutenek Marina Apariciok zuzendutako prestakuntza-saioetan parte hartuko dute; ibilbide luzea eginga duen aktore profesionala da Aparicio. Ostean, iazko ipuin-kontalarien taldeagaz elkartuko

dira, eta denek batera teknika hobetzen jarraituko dute. Behin prest daudenean, biran joango dira ipuin-kontaketak «oparitzeko» herriko zenbait ikastetxetako Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei; gero, Gabonetako Ipuin-kontaketa Maratoian parte hartuko dute, Kultur Leioan.

Harrera ona

Hitzaren Zuhaitza proiektua 2013an jarri zen abian; oso harrera ona izan duenez, Leioako Udalak eta GEUZek egitasmoagaz aurrera egitea erabaki dute. «Ekimenak harreman-gune bat sortzea proposatu gura du; belaunaldi arteko izaera duen gunea. Horrek komunitateko hezkuntza-arloko zereginak bultzatuko ditu, komunitatearen, herritarren eta eskolaren arteko lotura sendotuz, hezkidetzaren aldeko apustu irmoan», azaldu dute. ◀

info+: 633 016 107 / saioa@geuz.es

Barikuetan Jai ekimenak astero eskainiko ditu jolasak

Urriaren 2an bueltatu zen Barikuetan Jai egitasmoa; Euskara Zerbitzuak antolatuta eta Urtxintxa Eskolak kudeatuta, astero, jolasak edukiko dituzte herriko txikiek, 17:30etik 19:30era, Kultur Leioaren inguruan, hau da, Jose Ramon Aketxe plazan edo Errekalde plazan. Hala, hilaren 16an, Leioako kaleetan ezkatututa dagoen altxorren bila ibiliko dira. Baina, altxorra aurkitzeko, ezinbestekoa da piraten moztarria atontzea. Horrela bada, bakoitzak bere moztarria prestatuko du. Egitasmoaren helburua da umeek eta euren senitartekoei euskara erabiltzea herriko plazetan eta kaleetan. Hilaren 23an, herri-kirolak landuko dituzte. ◀

Aita Santuak amaitutzat eman du Gazteluetako ikerketa

Imanol Goyarrola Gaztelueta ikastetxeko zuzendariak jakinarazi duenez, Frantzisko aita santuak bertan behera utzi du bertoko irakasle zenak 12 urte zituen ikasle bati egindako ustezko sexu-abusuen gaineko ikerketa. Hala ere, auziak aurrera darrai epaitegian; orain hiru hilabete aurkeztu zuen salaketa daborduko adinez nagusia den mutilak.

Fedearen Doktrinaren Kongregazioak adierazi du «gertaerak ez direla frogatu», eta, ondorioz, «akusatuaren izen ona lehengoratzeko» eskatu du. Halaber, ikerketa «oso zehatza» izan dela azpimarratu du Opus Deiren ikastetxeko zuzendariak. ◀

Diru-laguntza gehiago emango die ekintzaileei Behargintzak

Behargintzak laguntza-lerro berri bi onartu ditu. Lehenengoa enpresa-idea garatzeko negozio-plana egiteko da. Bigarrena, ostera, jarduera berriak abian jartzeko. Laguntza biek dute Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren finantzaketa. Eskabideak aurkezteko epea urriaren 19ra arte egongo da zabalik.

Batetik, 21.400 euro jarriko dituzte, ekintzaileak izan daitezkeinei euren enpresa-idea sortzen, aztertzen eta egituratzen laguntzeko. Horrenbestez, Udalak 5 diru-laguntza banatuko ditu 25 urte baino gutxiago daukaten ekintzaileen artean; eta beste 14 laguntza, 25 urte edo gehiago dauzka-

tenen artean. Bestalde, enpresa-jarduera berriak abiarazteko 25.000 euro banatuko dituzte: 25 urtetik beherako ekintzaile biri emango diete; eta 25 urte edo gehiago duten beste zazpiti. Halaber, laguntza erabatekoa izan dadin, aukera emango zaie esleipendunei Leioako Udal Enpresa Mintegiko *coworking* gunean lan egiteko lekua izan dezaten, lekurik baldin badago, diru-laguntza horri lotuta dagoen aholkularitza-epean.

Gainera, Behargintzaren aurtengo deialdiak genero-ikuspegia ere hartzen du, emakumeen ekintzailetza bultzatzeko asmoz, agintari leioaztarrek adierazi dutenez. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



BETIKO IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf. 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



argihizkiak

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN IV. LEHIAKETAREN
ERAKUSKETA **Leioan**

Urriaren 18ra arte Kultur Leioan

Astegunetan 10:00-20:00
Jaiegunetan 11:00-14:00
17:00-20:00

argihizkiak.com   hiruka

Sopela



Ikuskizun interaktiboa da eta ikusleek zuzenean parte hartuko dute.

Zatoz zirkuaren mundu miragarria ezagutzera!

Cirque du Soleil-en ibilitako clown baten laguntzagaz, zirkuaren munduan murgilduko gara bariku honetan, hain zuzen, Gerry Regitschnig *clown*-agaz.

Gerry Regitschnig *clown*-aktoarearen ikuskizun berria da *Let's Circus*, eta bariku honetan ikus daiteke, urriaren 16an, Kurtzio kultur etxean, arrastiko 18:00etan. Umeentzako ikuskizun interaktiboa da, baina adin guztietako ikusleek gozatzeko modukoa ere bai. Ordubete inguru irauten du saioak, eta ikusleek zuzenean eta aktiboki parte hartu ahalko dute, modu dibertigarrian. Horrela, zirkuaren munduko figura kutunak gogora ekarriko dituz-

te: akrobatak, animalia-hezleak, pailazoak edo lehoiak. Umeek zein nagusiek figura horiek haragituko dituzte, Regitschnigegaz batera.

Sorpresaz betetako ikuskizuna izango da. Gorputzaren hizkuntzak, umoreak, musikak eta dantzak bat egingo dute. Regitschnigek ingeles erraza erabiliko du, denek ulertzeko modukoa, eta ikus-entzuleak bihurtuko ditu benetako protagonista, zirkuaren ildoan. Umeek 3 euro ordaindu behar dituzte; nagusiek, 5 euro. ◀

Silexa ezagutzeko ibilbide geologikoa, hilaren 16an

Burdina lantzen jakin aurretik, gizakiak kareharri-mota bat erabiltzen zuen lanabesak eta tresnak egiteko: silexa edo suharria. Sopelako labarretan silex ugari dago; askotariko tresnak egiteko suharria erauzten zen bertan. Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, horiek ezagutzeko aukera izango da: urriaren 16an, barikuan, ibilbide geologikoa egingo da, goizeko 11:00etan. Hainbat jardura izango da: material hori ezagutzen ikastea, azaleratzeak ikusteak, ondare eta geologiaren garrantziaz jabetzea, eta lehenengo biztanleen garapenean izan zuen eragina ezagutzea. ◀

info+: 944 065 519/www.turismoa.sopelaudala.org

Euskal SUP Surfing txapelketa, Arriateran domeka honetan

Sopelan izango da lehen Euskal SUP Surfing Txapelketa, Arriatera hondartzan, aste-akabu honetan. EHSF Euskal Herriko Surf Federazioak antolatu du, eta zapatuan ala domekan egingo da, hau da: txapelketa egun bakarrean egingo da, eta itsasoaren egoeraren arabera aukeratuko dute zapatuan ala domekan egin. Txapelketak maila bakarra izango du: OPEN maila; emakumeak eta gizonak aldi berean lehiatuko dira. Stand Up Paddle Surf edo SUP surfing delakoa oso modan dago; kirolariak arraun bat darrabil uretan aurrera egiteko, surf oholaren gainean zutunik doala. Antzina, batetik bestera joateko modu bat zen. ◀



Jone Loizaga, zerbitzaririk onena! Urriaren 5ean egin zen Bizkaiko Barman Txapelketa; Jone Loizaga Legarra sopeloztarrak irabazi zuen. Gin Tonic bat eta Bizkaiko txakolinagaz osatutako koktela egin behar zituzten; koktel mailan gailendu zen Loizaga. © PABLO URKIOLA

Irunbat
galp enpresa
C/ Loloia Ander Deuna, 74
Teléfono: 946 764 625
Fax: 946 762 582
Web: www.irunbat.net

OFERTÓN MARTES Y SÁBADO

Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!

Bentabxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

OSABIDE HORTZ KLINIKAK
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

LURREN

GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRIA
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udaleko atzean)

Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Getzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
i k a s t o l a

Berango

Bidegorria, Sopelaraino

Berangok bidegorria luzatuko du, Sopelagaz bat egiteko. Ibilbideak Kurtze komunikatuko du.

Berangoko Udalak Sabino Arana zeharkatzen duen bidegorria luzatuko du, kalearen azkenengo zatitik Larrabasterako zubiraino. Hala, asfalto gorriko 300 metro horiek atontzeagaz batera, 2009an abiatutako Simon de Otxandategi eta Sabino Arana kaleen arteko bidegorri-proiektua osatuko dute.

Istripu gutxiago

Hala ere, Berango 2020 Ekintza Planean aurreikusi eta jasotakoaren arabera, 2013an zegoen 2,92 kilometroko bizikleta-sarea bikoiztu egin gura du Udalak. Horrenbestez, aurrenartean, Getxorako zein Berango barru-



Iaz, Larrabasterako auzokideek eskatu zuten bidegorria Berangoraino luzatzea.

ko lotuneak hobetzea izango dira hurrengo pausoak.

Onartutako ibilbide berriak auke-
ra emango die auzokoei Sopelaraino bidaiatzeaz gainera, herrigunetik osasun-etxera zein merkataritza-zentro handi batera joateko. Gainera, lotune

bati esker, Kurtze auzoagaz ere lotuko da bidea. Udalak azpimarratu duenez bidegorria segurua izango da eta ondo seinaleztatuta egongo da. Horrek istripuen arriskua txikitzea ahalbidetuko luke. Denera, bidegorri-zati berriak 40.000 euroko kostua izango du.

Ahal Dugu-k batzarra deitu du hauteskunde programa lantzeko

Berangoko Ahal Dugu-k herriko bizilagunen topaketa bat antolatu du eguenerako, urriaren 15erako. Berangon Emilio Lobatok zuzentzen duen alderdi politikoak zabaldu duenez, topaketa hori 18:00etatik aurrera egingo dute, Berangoeta kultur etxean, Simon Otxandategi kaleko 64. zenbakian. Bertan batuko direnek «herriaren beharrak eztabaidatu» beharko dituzte, Espainiako «hauteskundeetako programa sortzeko» asmoz.

Ahal Dugu-k Espainiako hauteskundeetarako «guztion programa» egitea espero du horrela. Alderdi morearen arabera, «elkarregaz lan egingo dako lehenengo programa hiritarra lantzen gabiltza, denon artean».

Roberto Uriarte EAeko Ahal Duguren idazkari nagusiak prentsan iragarri duenez, litekeena da alderdi hori Equogaz batera aurkeztea.

info +: Facebook.com/podemosberango

Plentzia

EAJk uko egin dio Gobernu Batzordeari

Plentziako EAJren Udaltaldeak uko egin dio eratuko den Udaltaldeko Gobernu Batzordean sartzeko egin dioten proposamenari. Jeltzaleen esanetan, «Plentziaren alde lan egitea ez da erakunde ezberdinetan soldataren bat jasotzearen egotea».

«Sinesgarritasun falta»

Gaur egun, Plentzian ez dago Gobernu Batzorderik. 5.000 biztanle baino gutxiago izanda, eta Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legeari jarraiki,

Osoko Bilkurak erabaki behar du organo hori eratu gura duen ala ez, eta pasa den uztailaren 2an Udaltzatzak aurka bozkatu zuen.

Elixabete Uribarri bozeramaile jeltzalearen berbetan, David Crestelo alkateak orain dela egun batzuk egin dien «proposamenari sinesgarritasuna falta zaio». Uribarrik gogorarazi duenez, alkateak berak esan izan du ez dagoela Gobernu Batzordea osatzearen alde, «erakunde itxi eta ez gardena izan daitekeelako».

Gorliz eta Plentzia

Ondarearen Europako Jardunaldiak direla-eta, txango bereziak izango dira egunotan

Gorlizko itsasargira txango bana egingo dute datozen zapatuan eta martitzenean, Ondarearen Europako Jardunaldien harira. Gorlizko Turismo Bulegoak antolatutako ibilbideak Astondotik irtengo dira, Hondartzape jatetxearen aurretik. Urriaren 17koak 10:00etatik 13:00etara iraungo du, eta urriaren 20koak, 15:30etik 18:30era. Geologiako aditu batek bidearen eta itsasargiaren historia, flora eta faunaren zehaztasunen berri emango die ibilaldi interesgarri horretan ize-

na ematen dutenei. Era berean, auke-
ra egongo da itsaslabarretan dauden hainbat material bereizten ikasteko. Izan ere, itsaslabarrak interes geologikoko gunetzat katalogatuta daude. Ibilbidea kostaldeko baterietan amaituko dute, bertako kanoiak ikusteko.

Plentzia

Plentzian ere, domekan, burdinaren arrastoei jarraituko diete, baina, da-borduko, ez dago izena ematerik.

izen-ematea: 946 774 348, turismo@gorliz.net

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK
Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6
regaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

hiruka

Uribe Kostako astekaria

Zure taberna, jatetxea edota komertzioa
hemen agertzea gura baduzu
ipini zaitez gugaz harremanetan:

944 911 337
publi@hiruka.eus

www.hiruka.eus



Uribe Kosta

«Uribe Kostako landa eta solo guztiak galtzen joan dira»



Transhumantzia horregaz lortutako irudiakaz dokumental bat osatuko dute Fredi Paiak eta Aitor Gisasolak, hurrengo urtean.

Mikel Etxezarreta artzain zegamarrak 250 buruko artalde gidatu du Gipuzkoatik gure eskualderaino. Kontatu duenez, bide luzea izan da, polita eta oroitzapenez betea.

IKER RINCON MORENO ▶

Joan den hilaren 8an irten eta bost eguneko ibilaldia egin ostean, Mikel Etxezarreta artzain gipuzkoarra Algortara heldu zen astelehenean, hilaren 12an, 250 buruko artaldeagaz. Zegamatik Getxora, milaka urte dituen ohitura ekarri du gogora 52 urteko artzainak, ondoren Fredi Paia eta Aitor Gisasola getxoxtarrek horren inguruko dokumentala egiteko. Tarterik handiena oinez egin badute ere, hainbat zati kamioiz egin behar izan dute, «zenbait errepidek ezinezkoa egiten duelako oinez egitea».

8oko hamarkadan etorri zinen azkenengoz gurera. Zer dela-eta errepikatu duzue aurten transhumantziaren ohitura hori?

Duela urtebete pasatxo, Fredik proiektuaren nondik norakoak komentatu zizkidan. Hala, transhumantzia berriro ere biziartzea nahi zuela esan zidan, lehenengo ohitura tradizionalak historian jasotzeko, eta gure gazte-txoek ikus dezaten nolakoa zen.

Zelan gogoratzen dituzu gurean emandako garai haiek?

Bizitza osoa eman nuen hala, 28 urte bete nituen arte. Guk jaiotzetik, sehasatik, egiten genuen ibilbide hori, eta nik 28 urte izan arte egin nuen. Akabuko urteetan, errepideak direla eta ez direla arazoak izan genituen: ezin zen bidea egin. Hori dela-eta, tramu batzuk kamioietan egiten genituen, eramanez eta ekarri. Baina oinez ere urte askotan egin dut. Gurasoek eta aurrekoek beti oinez egin zuten bidea.

Noiz etorri zinen azkenengoz?

52 urte ditut, eta 27 urte nituenean, akabuko negua izan zen. Barrikara etortzen nintzen; Barrika, Goierri, Uduliz, Sopela eta Andara, bost herri horietan ibiltzen ginen artalde, gurasoak eta anai-arrebak; batez ere, anaiok egiten genuen lanbidea: banatuta ibiltzen ginen, eta ardiak ere banatuta ibiltzen genituen herri horietan. Auzokideek hartzen gintuzten, urtero tratu berriak egiten genituen: belarrak konpondu, esne, gazta edo diruarekin...

Zer dela-eta amaitu zen ohitura hori?

Orain, edo hobeto esanda, orduan, maneia eta lanbidean jarraitzeko behar ziren instalazio batzuk toki batean finkatu ziren, erosotasun gehiagorekin. Bestalde, lehen beti dependetzia ibiltzen ginen, hau dena errentan egoten zelako. Solo guztiak errentan egoten ziren, harremana urtez urte berritu behar genuen. Orain, gainera, hemengo bizimodua turismoa joan da, eta bertoko landa eta solo guztiak galtzen joan dira.

Elurteei ihesi etortzen zineten gurera lehen...

Lehen, negua iritsita, kostaldera etortzen ginen bai, elurra gutxien egiten duen lekutara. Beste artzain batzuk barrurago joaten ziren: Mungia, Muxika, Fika, eta hortik atzera. Guk, akabuan, itsasaldera jotzen genuen garai hartan.

Zelakoa izan zen azkenengo transhumantziaren esperientzia?

Orain egin dugunaren antzekoa. Urtearen lehenengo egunean irteten gi-

nen, eta hainbat parada egiten genituen, aurretik finkatutako lekuetan ardiek lo egiteko, otorduak egiteko, eta guk ere lo egiteko. Jendearekin harremana edukitzen genuen beti, urteroko martxa horretan, eta harremana nahiko ona zen. Oso ondo hartzen gintuzten, eta beti iritzi polit bat izaten nuen haiekin. Hori bai, apur bat nekagarria zen, baina...

Bideak asko aldatu dira azkenengo alditik hona?

Aurten ere, oso ondo joan da dena, jendearen harrera eta laguntza oso ona izan da. Ikuspegi horretatik, oso ondo. Puntu batzuek berdin jarraitzen dute, baina, orokorrean, dena aldatuta dago. Batez ere, landak; hain leku on, fin eta polita izan diren hemengo landa eta zelai asko galdu dira.

Bidean grabatutako irudiakaz dokumental bat egingo dute, zer iruditzen zaizu ideia hori?

Baietza horregatik eman nuen. Kontua da gazteek ikus dezatela zelan bizi garen, zelan izaten zen martxa hori, eta gero, historiarako balio baldin badu ere oso ondo; ateratako kutsua aprobetxatuta ezagutzera emateko balio badu... ederto!

Ibilbidea amaitzean, beste bat egingo duzu Idiazabalera, ezta?

Bai, proiektuari amaiera emateko, ikusaraziko dugu Gipuzkoan negua zelan pasatzen dugun eta Olaberri zer instalazio ditugun. Ondoren, Urbia-ko zelaietatik, Aizkorriko mendilerrotik Olaberriko behe-larretera joango gara. Ni izatez zegamarra naiz, eta bertan zerbait egingo dugu. Gero, Idiazabalen Euskal Herriko Gazten Txapelketaren finala da, eta handik ere pasatuko gara.

Hainbat sari irabazi dituzue ardien gaztagaz, ez da hala?

Bai, halabeharrez eta lanaren errekonozimendua ikusita, baditugu Euskal Herriko lau txapelketa irabazita. Kanpoan ere txapelak atera ditugu, Veronan, esaterako. Han, mendian egiten dugu gazta; bertako larrean bazkatzen dute ardiek, 1.300 metrora. Bertan, txabolan egindako gaztak dira, eta halako batekin irabazi genuen Veronan. Lanaren ondorengo sariak ederto etortzen dira. ◀

Uribe Kosta

Txirrindularien festa

Umeen Bizikleta Festa

antolatu du domeka honetarako Elkar Kirolak klubak. 4.500 parte-hartzaile espero dituzte.

Elkar Kirolak txirrindularitza-klubak Umeen Bizikleta Festaren IX. edizioa antolatu du domeka honetarako, urriak 18. Berango, Erandio eta Leioako udalek sortutako elkarteko kideek iazko parte-hartzaile kopurua gainditzea jarri diote erronka euren buruari. Hortaz, adin denetako 4.500 pertsonatik gora espero dute.

Ekimena goizeko 11:00etan abiatuko da, bizikleta-ibilbide batez. Martxa Erandioko Obieta kaletik irten, eta Leioan eta Getxon hainbat gelditue egin ostean, Berangoko Moreaga parkean amaituko da, 13:00ak aldera. Bertan, txirrindulariei opariak eta hanburesak banatuko dizkiete. Era berean, neska-mutilentzako hamaika jarduera izango da, esaterako, *jumping*, puzgarriak, eta zezen mekanikoa. 13:30ean, apar-festa egingo dute, eguraldi egokia izanez gero. Eta ondoren, 15:00etan, disko-festa izango dute



Iaz, 4.500 pertsona batu zituen Umeen Bizikleta Festak. © ELKAR KIROLAK

gozagai DJ Xaiborregaz. 17:00etatik aurrera, sendi osorako jolasak izango dira, festari amaiera emango dion txokolate-janaren aurretik.

Izen-ematea

Umeen Bizikleta Festan parte hartzea doakoa da, baina aurretik izena eman beharra dago. Gainera, derrigorrezkoa da umea helduren batez inskribatzea. Heldu bakoitzak ezin izango ditu ume bi baino gehiago erregistratu beragaz. Tramite denak jardunaldiaren webgunean egin daitezke lekuak amaitu bitartean, eta zenbakiak,

ordea, Berangoko Santa Ana kultur etxean jaso ahal izango dira.

Javier Garcia Elkar Kirolak taldeko zuzendari nagusiak adierazi duenez, «aurreko edizioak arrakastatsuak izan ziren, eta iazkoa jendetsuena izan zen, 4.500 parte-hartzailez». Halere, «horregaz konformatu beharrean, aurtun erroka berria izango da, eta parte-hartzea gainditzea espero dugu, gure protagonistak ahaztu barik: txikiak. Gure helburuak jarraitzen du izaten egun ederra pasatzea familian, ohitura ona transmititzen».

izen-ematea: Ubfesta.org

Barrika

Kobre lapurretak eragozteko sistema

Barrikako Udala sistema berri bat instalatzen dabil herri-argiteriako kobrea lapurtzea galarazteko. Dispositiboa, sare elektrikoaren aginte-zentroetan ipintzen dabil. Lapurtzeko ahalegina eginez gero, gailu horrek abisua emango du zuzenean, alarma-sistema baten bidez. Alerta hori kontrol-gune batean jasoko dute, eta aton aktibatuko du horrelako gertaerarako ekintza-protokoloa.

Jose Vicente Garcia Casado alkateordearen berbetan, «sistema horrek segurtasuna indartuko du, eta saihestuko du udalerrian kableak lapurtzen jarraitzea». Garciak azpimarratu duenez, ebasketa horiek «Udalari kalte ekonomiko handia» egiten diote.

Azken urte bietan bakarrik, Barrikan 40.000 euro baino gehiago galdu dira sare publikoan ebatsitako kableengatik. Halere, diruak baino gehiago, kezka sortzen dio: «lapurreta horiek gure auzokideen segurtasunean duten eraginak, kaltetutako eremuetan behin-behinean argiztapen barik geratzeagatik». Pasa den astean hasi ziren sistema berria aginte-zentroetan ipintzen, udalerriko kanpoaldetik hasita. Barrikan ipiniko duten sistema beste udalerririk batzuetan ere martxan dago, daborduko.

Urduliz



Arraza denetako txakurrek jolas dezakete diskoakaz. © ANA FUENTES

Txakurren akrobaziak eta trebeziak, domekan erakusgai

Domeka honetan, hilak 18, neska-mutilek eta helduek Urdulizen gozatu ahal izango dute akrobaziaz betetako kirol batez: *Disc dog* izeneko erakustaldia izango da 11:30etik 14:00etara, futbol-zelai zaharrean. Diziplina horretan, txakurraren entrenatzaileak disko bat botatzen du airera, txakurak salto egin eta harrapa dezan. AEBetan, milioi bat txakurrez

praktikatzen dute, gaur egun. Euskal Herrian ere hasi da zabaltzen, eta, besteak beste, Gasteizko Europako txapelketa hartu zuen, pasa den irailean. Ekimena Urdulizko Merkatarien Elkartek eta hainbat dendarik antolatu dute; sarrera doakoa izango da. Erakustaldiaz gainera, tailerra ere emango dute, eta unea gogoratzeko argazkia atera ahal izango da.

Unibertsitatea

Medikuntzako ikasleek sarean dituzte euskarazko apunteak

Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko ikasle-asanbladak denbora luzea daroa osasungintza euskalduntzearen alde borroka egiten. Hainbatetan salatu dituzte Espainiako mailako Mir azterketa erdaldua, irakasle euskaldunen eskasia, eta Fakultateak ikasle euskaldunei eskaintako euskarazko leku urriak. Hiru arazo horiek euskarazko irakaskuntza ekiditen duen «gurpil zoroa» legez izendatu eta apurtzeko asmoa adierazi zuten iaz. Horrela, iragan den ikasturtean, Eutsi plan estrategikoa ipini zuten martxan: zenbait pauso finkatu zuten gradua osorik euskaraz ikastea helburu. Egindako ahaleginak eta presioak izan dute ondorioz: euskaraz jasotzen duten ordu-kopurua handitzea lortu dute daborduko.

Bitarteko berria

Halere, gradua euskaraz osorik ikastetik oso urrun daude oraindino EHUko

Medikuntza ikasleak. Horregatik, bide errazteko, martxan ipini dute tresna berri bat: apunteen plataforma bat, Medikuntzako karrera guztian euskaraz ematen den jakintza osoa batzen duena. Tresna horren bidez, irakasleen zein ikasleen lana erraztu eta ezagutza medikoa kolektibizatuko gura dute.

Oztopoak albo batera utziz

EHUko Medikuntzako asanbladaren arabera, «askotan, irakasle elebidunen eskasia baino, irakasle horiek klaseak euskaraz emateko gaintitu beharreko oztopoak dira arazoaren jatorria. Oztopo horien artean, aipatu behar da euskarazko material falta, hau da, euskarazko apunte eta baliabideen falta». Ildo horretatik dator ikasleek diseinutako plataforma digitala. Bertako edukiak jasotzeko edo ekarpenak egiteko nahiko da posta elektronikoko bat bidaltzea.

Apunteak jasotzeko: eutsiapunteak@gmail.com



Urriaren 22an Uxue Alberdik *Euli-giro* liburuaz berba egingo du, Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak gonbidatuta. © SUSA

Ekitaldiak

Sopela

Urriak 15, eguna

19:00-20:30 Sopelako Irakurle Klubaren aurkezpena, Kurtzio kultur etxean. Horren ostean, Garbiñe Ubedaren *Hobe Isilik* (Elkar, 2013) liburuaren gainean berba egingo dute bertaratuko direnek. Sarrera, doan.

Urriak 16, barikua

20:00 Mertxe Martinez Bilbaoren *Badator itsasoa* izeneko poesia-errezitaldia, euskaraz eta gaztelaniaz, Kurtzio kultur etxean. Sarrera, doan.

Azaroak 19, eguna

19:00-20:30 Sopelako Irakurle Klubak antolatuta, Katixa Agirreren *Atertu arte itxaron* (Elkar, 2015) liburuaren inguruko berbaldia, idazlea bertan dela. Doan.

Getxo

Urriak 22, eguna

19:30 Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak antolatuta, *Euli-giro* (Susa, 2013) ipuin-liburuaz egingo du berba Uxue Alberdik, Algortako Aldai Patronatuan (Karitate kalea, 1). Sarrera, doan.

Literaturaz jantzita



Sopelako Irakurle Klubak urriaren 15ean abiatuko du ikasturte berria. Bestalde, Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak prest dauka hilaren 22ko saioa, Uxue Alberdigaz.

Sopelako Irakurle Kluba hilaren 15ean, eguna, bueltatuko da. Egun horretan, taldearen aurkezpena egingo dute, eta, ostean, berbaz hasiko dira ikasturteko lehenengo liburuaren inguruan: Garbiñe Ubeda tolosarraren *Hobe Isilik* (Elkar, 2013); 2012ko Augustin Zubikarai beka jaso zuen. Azaroaren 19ko saioa ere prest daukate Kurtzion: Katixa Agirre idazle gasteiztarra hurre-

ratuko da Sopelara, *Atertu arte itxaron* (Elkar, 2015) bere lan berriaz berba egiteko.

Hilean behin batzen dira sopoloztarrak irakurle-klubera, normalean hileko azken eguenetan, 19:00etatik 20:30era, Kurtzio kultur etxean. Hala ere, abenduko saioaren data eta irakurgaia taldekideen artean adostuko dutela adierazi dute. Danele Sarriugar- te izkiriartzaile elgoibartarrak gidatzen

ditu ekitaldiak; berak liburua eta idazlea aurkeztu, eta, ondoren, bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu.

Irakurle-kluba alde batera utzita, barikuan, urriak 16, *Badator itsasoa*

Mertxe Martinez Bilbaok poesia-errezitaldia eskainiko du Kurtzio kultur etxean

izenburuko poesia-errezitaldia eskainiko du Mertxe Martinez Bilbao poeta sopoloztarrak, 20:00etan, Kurtzion.

Kultur etxetik adierazi dutenez, ekitaldia gaztelaniaz eta euskaraz izango da, eta sarrera, doakoa. Martinezek olerkiak eta argazkiak uztartuko ditu.

Bestalde, Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoari (UKITX) dagokionez, hilaren 22an, Uxue Alberdi gonbidatuko dute *Euli-giro* (Susa, 2013) ipuin-liburuaz berba egiteko. Hitzordua 19:30ean ipini dute Algortako Aldai Patronatuan (Karitate kalea, 1). Hurrengo zitan, azaroaren 26an, Koldo Izagirrerren berbaldia entzuteko aukera egongo da leku eta ordu berberetan; pasaitarrak *Lorea Gernika, andrazko bat* (Susa, 2015) nobela edukiko du berbagai. ◀

Amaitzear dira Getxoko Antzerki Jardunaldiak

Zapatuan, urriak 17, bigarren eta azken aste-akabuari ekingo dio Getxoko Antzerki Jardunaldien 33. edizioak. Hala, adin guztientzako antzezlan bik osatuko dute Algortako San Nikolas plazako eskaintza, 13:00etan: zapatuan, Jon Zabalen *El suceso*, gaztelaniaz; eta domekan, Zirkozaurre taldearen *mOrse*, testu barik. Doan izango dira biak. Areetako musika-eskolako saioei dagokienez, euskarazko obra bi egongo dira: zapatuan, *Kreditua* (Tanttaka Teatro), helduentzat; eta domekan, *Pinotxo txikia* (Opera Divertimento) umeei zuzendutako opera. Bien sarrera ordaindu beharrekoa da. ◀

Azken saioak

Urriak 17, zapatua

13:00 *El suceso* (Jon Zabal), Algortako San Nikolas plazan. Adin guztientzat. Gaztelaniaz. Sarrera: doan.

20:00 *Kreditua* (Tanttaka Teatro), Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Helduentzat. Euskaraz. Sarrera: 10 euro.

Urriak 18, domeka

13:00 *mOrse* (Zirkozaurre), Algortako San Nikolas plazan. Adin guztientzat. Testu barik. Sarrera: doan.

18:00 *Pinotxo txikia* (Opera Divertimento), Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Umeei zuzendutako opera. Euskaraz. Sarrera: 5 euro.

info+: www.getxo.eus

Ongintzazko antzezlan eskainiko dute Leioan

Leioako Andrak emakume-elkar- teko Gu Gara Taldeak ongintzazko antzezlan eskainiko du barikuan, urriak 16; Stop San Filippo Fundazioarentzat dirua batzeko asmoz, Alejandro Casona antzerkigilearen *Farsa y justicia del corregidor* obra taularatu- ko dute. Hitzordua 19:30ean izango da, Kultur Leioan; daborduko txartelak salgai daude, 5 euroan, Andrak elkar- tearen egoitzan (Sabino Arana kalea, 78). Stop SanFilippo Fundazioak dirua batzen du gaixotasun hori daukaten umeei begirako entsegu klinikoak egi- teko. Bizi-itxaropen txikia daukate gai- xotasuna dutenek; nerabearora arte, kasu askotan. ◀

Azebarriren egoitza inauguratuko dute barikuan

Orain dela hilabete batzuk egoitza utzi behar izan zuen Algortako Azebarri Kultur Elkartek; baina, daborduko, lokal berria prest dauka. «Haize barriak ekarri genduzan, argi barriak isiotuko doguz», diote talde- ko kideek. Hala, barikuan, urriak 16, inaugurazio-ekitaldia egingo dute 21:00etan; egoitza Algortako Euskal Herria kaleko 14-16 zenbakietan dago, Boca Boca jatetxea zegoen lekuan.

ALBE Algortako Bertsolari Esko- lak bultzatutako proiektua da Azeba- rri, Uribe Kostan euskarari arnas-gune bat zabaltzeko asmoz; kultura eskain- tzeaz gainera, gastronomiaz gozatze- ko aukera eman gura du. ◀



LEIOA

© THOMAS NOONE DANCE

Antzezteaz gainera, dantzan erakutsiko dute

Urriaren 18an, domeka, *Alicia* ikus-kizuna eskainiko du Thomas Noone Dance talde katalanak. Gainera, ikusleakaz egoteko tartea hartuko dute antzezleek, 45 minutu iraungo duen saioa amaitutakoan. Emanaldia 18:00etan hasiko da, Kultur Leioako entzungelari; eta sarrerak 5 euroan daude salgai. Hori gutxi balitz, Thomas Noone Dance taldeak dantza-tai-

lerra emango du; familia osoari dago zuzenduta.

Lewis Carrolen eleberriaren egotetarik absurdoenetan inspiratuta, eta daborduko imajinario kolektiboan dauden irudiak akordura ekarritz, Thomas Noone Dance-k mugimenduagaz zeharreko bidaiera garoatza, irudimen eta fantasiaren ahalmena aldarrikatuz. Talde katalanak familia

osoarentzat egin duen bigarren antzerki eta dantza ikuskizuna da.

Ikuskarian, Alizia eta Untxi Zuriak maleta bat aurkitzen dute, hiru pertsonaia bereziren zaintzapean. Hiru pertsonaiek bahitu egiten dituzte beste biak, eta herrialde eder batera daroatzate, Untxi Zuriak Alizia bere mundura itzularazten duen arte.

dantza-tailererako: 946 072 570

SOPELA

Extremadurako Kultur Astea azken txanpara helduko da Astrabuduan

Urriaren 9an hasi zuen 34. Kultur Astea Getxo kalean dagoen Extremadura-ko Etxeak; hilaren 18ra arte izango da zereginik. Hala, eguen honetan, zezeketen inguruko berbaldia egingo dute, 19:30etik aurrera. Barikua, oster, Umeen Eguna izango da: puzgarriak, betiko jolasak, eta esku-lanak edukiko dituzte txikiek. Zapatuan, senidetasan-bazkaria egingo dute, eta Urban bertoko taldeak kontzertua eskainiko du. Kultur Asteari akabera emateko, domekan, dantzen alardea eta Extremadurako gozokien herri-dastaketa egongo dira.



GETXO

Luzero lumuturreko aztarnategiaz

Urriaren 19an, astelehena, arkeologiarren gaineko berbaldia eskainiko dute Itzubaltzeta/Romon Iñaki Libano eta Asier Gomez adituek. Hain zuzen ere, Libanok berak Luzero lumuturrean aurkitutako aztarnategiaz jardungo dute; 400.000 urte baino gehiago dauzkaten ugaztunen fosilak topatu zituzten bertan. Berbaldia 19:00etan izango da, Gobelaurre kaleko Bolutariotza Zentroan; sarrera doan izango da. Uribe Kosta eskualdean gai horren inguruan egiten duten lehenengo saioa da.

2015/10/17 - 20:00

Kreditua antzezlan

Areetako musika-eskola | Getxo

Tantaka taldeak antzeztuta. Helduentzat. Euskaraz. Sarrera: 10 euro.

2015/10/17 - 20:15

Irrational man filma

Kultur etxea | Urduliz

12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

Euskarazko ipuinak, entzungai Romon

Eguenean, urriak 15, Ipuinakaz olgetan Mariolasegaz izenburuko saioa egingo dute Gobelako haur-liburutegian, Itzu-baltzeta/Romon. Saioa 18:00etan izango da; sarrera, doan, eta liburutegia bete arte egongo da sartzeko aukera ◀

Saltokien azoka aste akabuan, Altzagan

Erandioko Merkatarien Elkarateak antolatuta, urriaren 16tik 18ra Azoka Fantasitiko hartuko du Altzagako Irailaren 23a plazak. Gainera, Erandio Club elkarteren mendeurrena denez, bazkide-txartel bi zozketatuko dituzte. ◀

Balendin Enbeita gogoratuko du ALBEK

Zapatu honetan, urriak 17, Balendin Enbeita bertsolari muxikarrari gorazarre egingo dio ALBEK. Hitzordua Bilboko Areatzan ipini dute, goizeko 10:30ean. Besteak beste, ibilaldia, itsasaldia, bazkaria eta ekitaldia egongo dira. ◀



© THE TWO

The Two bikotearen doinuak, Leioan

Maurizio Uhartea edo Suitza guztiz desberdinak izanda ere, jatorri hartakoak dira Yannick Nanette eta Thierry Jaccard musikariak, eta Deltako blues eta blues kreolearen iturrietatik edaten dute; euren arteko konplizitateari esker, musika hizkuntza unibertsala dela frogatzea lortu dute. ◀

Noiz: Urriak 16, barikua. 22:00

Non: Kultur Leioa

Sarrera: 10 euro
Musika Gertu zikloaren barruan; 80 lagunenitzako lekua dago.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

La cocinera del presidente

genero-ikuspegiko filma

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Itzartu emakumeen elkarateak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/10/15 - 18:00

Nire bizikleta ipuin-kontaketa

Josu Murueta kultur etxea | Erandio

Berbak eta marrazkiak uztarruko ditu Kale Kantoitaldeak. Euskaraz. Sarrera, doan.

2015/10/15 - 19:00

Sopelako Irakurle Klubaren ikasturte hasiera

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Garbiñe Ubedaren *Hobe izilik* liburuaen inguruan berba egingo dute. Euskaraz. Doan.

2015/10/15 - 19:00

Kantagunea

Altzagako azoka zaharra | Erandio

Euskal kantuak abesten gozatzeko lagunartean. Parte-hartzea, libre.

2015/10/16 - 17:30-19:00

Ludoteka

Udal liburutegia | Barrika

3 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Doan.

2015/10/16 - 19:30

Ongintzazko antzezlan

Kultur Leioa | Leioa

Alejandro Casonaren *Farsa y justicia del corredidor* antzeztuko du Gu Gara Taldeak (Andriak). Sarrera: 5 euro. Batutako dirua Stop San Filippo Fundazioarentzat izango da.

2015/10/16 - 20:00

Badator itsasoa

poesia-errezitaldia

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Mertxe Martínez Bilbao poeta sopeloztararen bertsoak eta irudiak. Euskaraz eta gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/10/17 - goizean

Ume eta gazteei begirako

marrazki-lehiaketa

Tellagorri plaza (Algorita) | Getxo

Basozaleak elkarateak antolatutako Mikologia Jardunaldien barruan. Informazio gehiago: www.basozaleak.org

2015/10/17 - 13:00

El suceso antzezlan

San Nikolas plaza (Algorita) | Getxo

Jon Zabalek antzeztuta. Denentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2015/10/17 - 18:00

Atrapa la bandera filma

Kultur etxea | Urduliz
Denentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

2015/10/17 - 19:00-20:30

Dantza plazan

(erromeria-ikastaroa)

Mendiguren plaza (Astrabudua) | Erandio
Trabudu Dantza Taldeak antolatuta. Doan.

2015/10/18 - 11:00-14:30

Mikologia-erakusketa

Tellagorri plaza (Algorita) | Getxo

Basozaleak elkarateak antolatutako Mikologia Jardunaldien barruan. Perretxikoen sailkapen-lehiaketa, perretxiko-dastaketa, eta argazki-lehiaketaren sari-banaketa ere egingo dituzte. Doan.

2015/10/18 - 13:00

mOrse antzezlan

San Nikolas plaza (Algorita) | Getxo

Zirkoaurre taldeak antzeztuta. Denentzat. Testu barik. Sarrera, doan.

2015/10/18 - 17:30-20:30

Dantzaldia

Altzagako azoka zaharra | Erandio

Los Palmeras taldeagaz. Sarrera, doan.

2015/10/18 - 18:00

Pinotxo Txikia antzezlan

Areetako musika-eskola | Getxo

Opera Divertimento taldeak antzeztuta. Umeei zuzendutako opera. Euskaraz. Sarrera: 5 euro.

2015/10/18 - 19:00

Let's circus ikuskizuna

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Ingelesezt, «denontzat ulargarria». Sarrera: 3 euro, umeak, eta 5 euro, helduak.

2015/10/19 - 19:00

Irakurleen Kluba

Josu Murueta kultur etxea | Erandio

Ikasturtea abiatzeko, Milena Busquets idazlearen *Tambien esto pasara* liburua aukeratu dute. Sarrera doan da, baina izena eman behar da udaletxean edo Astrabuduko udal-bulegoan.

2015/10/20 - 19:30

Setas de Bilbao de toda la vida berbaldia

Algoritako kultur etxea | Getxo

Basozaleak elkarateak antolatutako Mikologia Jardunaldien barruan. Gaztelaniaz. Doan.



Lumak astindu

**KOLDO
TELLITU MEJIA**
Ikastolen elkarteko
lehendakaria

Ziurgabetasuna aukera bilakatu behar dugu

Hasi berri dugu ikasturtea, eta ezin azterketa-rik/proposamenik egin gure hezkuntza sistema gidatu beharko lukeen arau markoari buruz ziurgabetasuna azpimarratu gabe. Hala ere, egoera honek Hezkuntza komunitatea ez duela paralizatu behar uste dut, eta ziurgabetasuna aukera bilakatu behar dugu.

Pasa den ikasturtean, LOMCE indarrean jarri zen ikasturtean, lortu genuen hura egin zutenek marraztutako bidetik urrun egoitea gure herrian, gizartearen aktibazioari esker eta gure ikasgeletara iritsi behar ez zuela argi zeukaten hezkuntza eragileen ausardiari esker.

Euskal Herrian behar eta nahi dugun Hezkuntza Sistema Propioa eraiki nahi dugu, LOMCE bezalako mehatxuek guran eraginik izan ez dezaten. Bai, egia da, hil-hurren dagoela dirudiela, baina ematen du askok hil aurretik ehortzi nahi dutela LOMCE. Eta ez da horrela. Ikasturtea hasi dugu LOMCEren neurri gehiago indarrean sartuta. Horregatik aurre egin behar diogu. Aurre egingo diogu kalean, udazken honetarako deitu diren mobilizazioekin. Baita gure lurraldeetako gobernuari ere eskatu behar diegu LOMCE gure herriko ikastetxeetan inola ere ez dezatela aplikatu.

Eta nola ez, hau guztia aurrera eramateko tresnarik eragin korrena hezkuntza burujabetza osoa eskuratzea dela, gure bide propioa egitea dela azpimarratuz; hezkuntza komunitatearekin eta herritarrekin batera egin beharreko bidea, kalean eta ikastetxetan... Une erabakigarrian gaude urteetako inposizioei stop esan eta hezkuntzaren gaineko erabakiak gure herrian hartzeko, bertan erabakitzea beharrezko dela argi adierazteko, eta pausoak eman behar ditugu norabide horretan. ◀

Mikologia Jardunaldiak egingo dituzte Basozaleek



Perretxikoen sailkapen-lehiaketa ere egingo dute. BERNIE

Aurten 25 urte beteko ditu Getxoko Basozaleak elkarteak. Ohi den legez, Mikologia Jardunaldiak antolatu dituzte, urriaren 29ra arte. Berbaldiez gainera, lehiaketak, erakusketak eta dastaketa egongo dira.

Argazki-lehiaketagaz zabaldu zuen Basozaleak elkarteak aurtengo Mikologia Jardunaldien egitaraua. Hala, hilaren 17ra arte, Algortako kultur etxean egongo dira ikusgai aurkeztutako irudiak. Sari-banaketa, berriz, domekan, hilak 18, egingo dute Tellagorri plaza.

Betiko legez, perretxikoen erakusketa egongo da bertan, 11:00etatik 14:30era; baita perretxiko-aleak dastatzeko aukera ere. Horregaz batera, lau hitzaldik eta marrazki-lehiaketa batek osatuko dituzte jardunaldiak. Berbaldiak hilaren 16an, 20an, 27an eta 29an izango dira, 19:30etik aurrera, kultur

Egunotan

Urriak 16, barikua

19:30 *Cortinarios*. Subgenero *Mysacium* berbaldea, Jose Antonio Cadiñanosegaz, Algortako kultur etxean. Gaztelaniaz. Doan.

Urriak 17, zapatua

Goizean, ume eta gazteentzako marrazki-lehiaketa, Algortako Tellagorri plazan. Informazioa: www.basozaleak.com

Urriak 18, domeka

11:00-14:30 Mikologia-erakusketa, Algortako Tellagorri plazan. Doan.

11:00-14:30 Perretxikoen sailkapen-lehiaketa 16 urtetik beherakoentzat, Tellegorri. Doan.

12:00-14:00 Mikologia-dastaketa, Algortako Tellagorri plazan. Doan.

14:00 Argazki-lehiaketaren sari-banaketa, Algortako Tellagorri plazan.

Urriak 20, martitzena

19:30 *Setas de Bilbao de toda la vida* berbaldea, Pablo Garcia Azkarategaz, Algortako kultur etxean. Gaztelaniaz. Doan.

etxean. Eta marrazki-lehiaketa hilaren 17an, goizean, Tellagorri plazan.

Basozaleak elkarteak 90eko hamarkadan sortu zuten perretxikozaleek, Itzubaltzeta/Romon; 1995ean, berriz, botanika, lore eta zuhaitzen ikerketara zabaldu zuten. Gaur egun, Algortako Aldai Patronatuan (Karitatea, 1) daukate egoitza. Bertan batzen dira astelehenero eta eguaztenero, 19:00etatik 20:30era; perretxiko eta landareen inguruan gehiago jakin gura duten lagunen esanetara daude. ◀

info+: www.basozaleak.com

Jende ugari batu du Getxophoto jaialdiak



© GETXOPHOTO

Urriaren 4an amaitu zen Getxophoto jaialdiaren bederatzigarren edizioa. Horren antolatzaile Begihandi Kultur Elkarteak emandako datuen arabera, hilabeteetan, 14.000 lagunek bisitatu dituzte

itxitako aretoetan jarritako lau erakusketak. Bestalde, «ziur jakitea zaila den arren, kanpoko instalazioak 80.000 pertsonen ikusi dituztela kalkulatu dugu», adierazi dute ekimenaren arduradunek. Horrez gainera, aurtengo hainbat ekitaldi berri gainezka egon direla ziurtatu dute.

Begihandik aurreratu duenez, hamargarrena izanda, berezia izango da Getxophotoren 2016ko ekitaldia; orain arte jaialdiaren zuzendari izandako Jokin Aspuru egingo ditu komisariolanak. Horretarako, komisario izandako Alejandro Castellote, Frank Kalero eta Christian Caujolle edukiko ditu alboan. ◀

Eric Reynolds argitaratzaileak parte hartuko du Getxoko Komiki Azokan

Komiki arloan izen eta entzute handiko Eric Reynolds argitaratzaile estatubatuarra Getxoko 14. Komiki Azokan egongo da, Getxoko Udalak iragarri dutenez. Azaroaren 20tik 22ra izango da aurten azoka, eta Reynolds-ek zenbait jardueratan parte hartuko du. Halaber, Getxon batuko diren profesionalak aukera izango dute eragin handiko argitaratzaile horregaz harremanetan ipintzeko. Komikigile, kritikari eta argitaratzaile ibili da Reynolds; gaur egun, Fantagraphics argitaletxe ospetsua zuzentzen du. Publizitatean eta marketinean ere badihardu. ◀

info+: www.salondelcomicdegetxo.net

«Ahal duten ondoen antzezten
ahalegintzen dira nire ikasleak»

Alex Ygartua antzezlaria

La casa de Bernarda Alba
obra antzeztu du Sopelan,
Gorlizko Antzerki Eskolako
bere ikasleakaz.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Bere ikasle nagusiakaz, ohol-tza gainera igo da Alex Ygartua gorliztarra. Gainera, ikas-turte honetan, gazteenei an-tzerkia zer den erakusteko helburua ipini diote euren buruari bertoko ira-kasleek. Bitartean, *Ausartien bidaia* mikroantzezlanagaz eta Plentzia Tele-bistako aurkezle-lanakaz jarraitzen du Ygartuak.

Aktore ez ezik, zuzendari ere bazara
La casa de Bernarda Alba obran. Ur-
duri jarri zaitu horrek?

Urduri baino, irrikan nengoen zelan egingo genuen ikusteko. Uztail alde-
ra estreinatu genuen antzezlan, eta
eskertzekoa izan da beste behin ere
antzezteko aukera eman izana; talde
amateur bati ez zaizkio horrelakoak
egunero gertatzen. Izan ere, hainbes-
te hilabeteko lanaren ostean, penaga-
rria izango zen behin bakarrik antzez-
tu ahal izatea.

Ni oso lasai nengoen nire taldearengan konfiantza osoa daukadala-ko eta gogo osoz jardungo zutela bane-kielako; hobeto ala txarrago egin arren, nire ikasleak beti ahal duten ondoen egiten ahalegintzen dira.

**Zaila da aldi berean aktore eta zuzen-
dari jardutea, ezta?**

Zuzendari eta irakasle izateaz gainera, aktore ere aritzen naiz orain; 17 urte nituenetik nabil taula gainean.



17 urte zituenetik dihardu aktore Ygartuak.

Hala ere, zuzentzea ere gogoko dut; antzerkia ulertzeko daukadan modua adierazten laguntzen didalako horrek, hain zuzen ere; bakoitzak bere egiteko erak dauzka. Batzuetan ez da erraza izaten... Eskola-orduak, ikasleen entseguak eta eskolatik kanpo egiten ditudan obren prestaketa zein antzezpenak bateratzea ez da erraza; ordu-tegiak gainjartzen direlako askotan. Baina orain arte, zortea izan dut, eta aurrera egitea lortu dut.

La casa de Bernarda Alba antzezla-
nean moldaketarik egin duzue?

Jatorrizko testua zaintzeko orduan, oso zorrotzak izan gara; antzezlanak ondo idatzita dago, eta beharrezkoak dituzun jarraibide denak eskura jartzen dizkizu, aktore zein zuzendari aritu ahal izateko. Testu originalak ez du moldaketarik behar.

Antzezlanaren prestaketa zaila izan da ikasleentzat?

Prozesua luzea izan da. Ikasturte hasieran, apurtxo bat beldurtuta zeuden; ez zeuden ohituta testu horren luzeak eta zailak prestatzen. Ez dugu ahaztu

“Neska-mutilei
antzerkiagaz gozatzen
erakutsi gura diegu,
anbizio-gogo barik”

behar esaldi horien bitartez, emozioak sentiaraztea lortu behar dugula. Hala ere, apurka-apurka ikasiz joan dira, eta, akabuan, harrituta geratu dira eurak ere, egin dituzten aurrerapenakaz. Bihotzez eskertzen diet nigan konfiantza osoa jarri izana.

Umeen taldea ere badaukazue orain.

Bai. Horrela da. Urriaren 5ean hasi zuen ikasturtea Gorlizko Antzerki Eskolako ume eta gazteen taldeak. Helburua oso erraza da: aurretik antzerkiagaz harremanetan egon ala ez, neska-mutilak erakarri gura ditugu mundu honetara; antzerkiagaz gozatzten erakutsi gura diegu, besterik ez; inolako irabazi edo anbizio-gogo barik, jolasean erakutsiz bakarrik.

Eskolak emateaz gainera, zertan zabiltza gaur egun?

Bibon dagoen mikroantzezlan- eta antzezlan-zirkuitu batera aurkeztu nintzen hainbat lankidegaz, *Ausartien bidaia* obragaz; Pabellon 6 aretoan estreinatu genuen. Emanaldi nahikotxo izaten gabilta. Horrez gainera, aurkezle zein zuzendari nabil Plentzia Telebistan.

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota : 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota : 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

☐ **Bazkide Erabiltzailea**
☐ **Bazkide Laguntzailea**

Hiruka laguna

☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____€

Izena											NA									
-------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	----	--	--	--	--	--	--	--	--	--

[illegible][illegible][illegible]

Herrialdea											Telefonoa								
------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	-----------	--	--	--	--	--	--	--	--

[illegible]

Kontu korrante zenbakia																		
-------------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua, 48992 GETXO

Aben duaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileak HIRUKAR emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzailearen haren emandako informazioa eta HIRUKAREN informazioa eta publikatzea helarazteko. Bestelako erabiltzailearen aurretiko informazioa ezarria behar du. Erabiltzaileak nahai duen datuak zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetan idatziz: hiru@hiruika.eus

«Txikiren hilketan parte hartu zuten denak zigor ditzatela nahi dut»

Aurtengo irailaren 27an 40 urte bete ziren, ETako kide Jon Paredes Manot *Txiki* eta Anjel Otaegi Etxeberria, zein FRAPeke Jose Luis Sanchez Bravo, Ramon Garcia Sanz eta Humberto Baena Alonso fusilatu zituztenetik, Franco diktadorea azkenetan zela. Testuinguru horretan, *Txikiren* anaia Diegok berbaldia egin zuen hilaren 9an, Sopelan, Ahaztuak 1936-1977 elkarteak gonbidatuta.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Oroimen kolektiboan geratu da orain dela 40 urte gertatutakoa. Zelan gogoratzen duzu zuk?

Jon fusilatu zutenean, 18 urte neuzkan nik; banekien ETako militante zela, eta argi zegoen hil egingo zutela. Izugarri amorratu ninduen atxilotu ostean egin zioten denak: torturatu egin zuten, beragaz bihozgabe jokatu zuten, euskal erakunde independentista bateko kide izateaz gainera, extremadurarra zelako. Hala, oso argi neukan hil egingo zutela, eta anaia galduko nuela.

Zelakoa zen Jon?

Tipo oso alaia zen, baina oso idealista, aldi berean. *Che* Guevararen kamiseta soinean, 14 urte baino ez zituela, langileen eskubideen alde borrokan zebilen lantegian; tirabira handiak eragin zizkion horrek. 15 urtegaz, ostera, barrikaden atzean ibiltzen zen. Bestalde, herrien askatasunean sinesten zuen, eta nahiz eta jatorriz kanpotarra izan, hemen borrokatzeari ekin zion, bizi zen herriaren alde egiteko asmoz. Nire anaia bezalako pertsona gutxi egongo dira...

Zarautzera Extremaduratik helduta, garai hartan erraza zen Euskal Herriaren aldeko aldarrikapenak bere egitea?

Egia esateko, garai haietan Zarautzen etorkin asko zegoen. Kontua hau zen: bertako egiten zinen ala ez. Guk, zorionez, oso ondo hartu gintuen jendea ezagutu genuen; ez zen inolako bazterketa ahalegirik egon. Are gehiago esango dizut: Extremadura-

tik etorritako beste lagunengandik sufritu genuen mespretxua; «zer egiten duzue euskaldunakaz?», aurpegiratzen ziguten. Oso erraz murgildu eginen Zarautzeko giroan. Mendira joateko edo ur azpiko arrantza egiteko ohiturek erabat liluratu gintuzten; Extremaduran ez geneukan holakorik. Lau neba-arreba ginen, eta bere kuadrillatxoa osatzen joan zen

“ Garai hartan jarduneko estatu-burua zen Juan Carlos Borboikoa ere zigortu beharko lukete fusilamenduengatik ”

bakoitza; jende euskaldunagaz ibiltzen hasi ginen, eta pixkanaka egoera politikoaz jabetzen.

Noiz hasi zen ETA erakundean Jon?

Nik dakidala, langile-frontean hasi zen 14 urte zituela, baina 16-17 urtegaz uste dut beste kontu batzuetan murgildu zela; izan ere, lagunetako batzuek horixe bera esaten zuten. Borroka armatuari 18-19 urtegaz ekin zion. Hala ere, ez pentsa ETAn asko iraun zuenik: komando legal baten kide izan zen urtebete, eta beste urtebete, liberatu; 1975eko uztailaren 30ean atxilotu zuten Bartzelonan, 21 urte zituela,

Iñaki Perez Beotegi *Wilson* militanteagaz batera. Garai haietan, aukera logikoena iruditu zitzaion ETAn jardutea.

Atxilotu ostean, uste duzu *Txikik* sumatzen zuela pagaburu izango zela, Franco azkenetan zela?

Txikik berak aipatu zuen akabatu gura zutela; oso argi zeukan atxilotu zutenetik. Esperantza azken momentura arte mantendu ohi duzu. Izan ere, 11 lagun zeuden heriotzara zigortuta, eta, nazioartean izandako presioei eta mobilizazioei esker, sei heriotza-zigor bertan behera utzi zituzten. Hala ere, Francok ez zuen zalantzarik izan ETako kide *Txiki* eta Anjel Otaegi, eta FRAPeke Jose Luis Sanchez Bravo, Ramon Garcia Sanz eta Humberto Baenaren kasuetan; heriotzaraino eramane zituzten. Klandestinitatean zegoenetik, egoeraren jabe zen *Txiki*; ondokoa esaten zidan: «hemen egonda, batean guri tokatuko zaigu, eta bestean, *txakurrari*».

Azkar batean epaitu eta kondenatu zuten.

Engainu hutsa izan zen. ETako beste hainbat kide ere atxilotu zituzten, eta, hasieran, hainbat ekintza armatu leporatzen zizkieten denei. Baina, azken orduan, sumario berri bat bururatu zitzairen; 1975eko ekainaren 6an Bartzelonako Caspe kaleko Banco Santanderren egoitzan gertatutako atrakuan, Ovidio Diaz Lopez polizia armatua hiltzea leporatu zioten *Txikiri*. Irailaren 19an egin zioten gerra-kontseilua, azken finean extremadurarra eta militante oso akti-



boa izateagatik. Bere abokatuek lau ordu baino ez zituzten eduki auzia aztertzeke.

Epaiketa muntaia hutsa izan zen. Bera, bertan, bankuan ez zela egon frogatu zuten, baina, hala eta guztiz ere, heriotza-zigorra ezarri zioten.

Zergatik uste duzu kanpotarra zelako heriotza-zigorra ezarri ziotela?

Ezin zuten onartu jatorriz Extremadurakoa zen lagun bat ETA bezalako erakunde batean sartu izana; eskarmentua eman gura izan zuten, baina txarto ateratzai. Pentsatu zuten extremadurarra akabatu-ta, kanpotar gehiagok ez ziola ekingo Euskal Herriaren aldeko borrokari. Geroago eroriko ziren jatorri ezberdinetako ETAk kideak.

Zer esango zenieke Txiki hiltzeko agindua eman zutenei eta katua sakatu zutenei?

Lehenik eta behin, nire barkamena ez daukatela. Biktimen kontuagaz, nahiko eszeptikoa izan naiz beti; gure hildakoengatik negar egiten dugu guk, eta euren hildakoengatik, haiek. Gizakia gizaki denetik hala da; ez daitezela etor orain bestelako kontuekin. Argi eta garbi esan nahi dut: ez diet ezer onik opa. Ez dut ahaztu, ezta ahaztuko ere; barkatu ere ez.

Eusko gudariak abesten hil zen Txiki.

Nire ustez, hori ikustean, kikildu egin ziren borroak. Guardia Zibilaren informazio-brigadako kideak ziren denak, eta boluntario aurkeztu ziren Txiki hil-

tzeko. Bada, nire anaiaren jarrera ikusita, beldurtuta-edo, airera tiro egin zuen haietariko batek.

Egon zen zure anaiaren ausardia goraipatu zuenik. Coronado kapitainak, ofizioz izendatutako abokatuak, heriotza-zigorra bertan behera uztea eskatu omen zuen. Ez dakit morroi berbera izango zen, bai-

“ Euskal Herriaren independentziaren alde borroka egin zuen iraultzaile bat izan zen nire anaia Jon Paredes Manot ”

na gure amak kontatu zigun epaiketaren ostean militar bat hurbildu zitzaiola eta zera esan ziola: «zure semea bezalako mila soldadu edukiko banitu, soberan izango nituzke gaur egun Espainian dauden denak». Hala ere, amak ez zuen ondo gogoratzen zein graduazio zeukan. Bartzelonan bertan, nire anaia hil eta denbora gutxira, ezustean, tiroz hilda aurkitu zuten torturretan parte hartu zuen polizietako bat, yoga egiten omen zebilela; bere buruaz beste egin zuela esan zuten askok. Izan ere, zelan ibiliko zara yoga egiten pistola soinean daramazula? Ezkututzen saiatu ziren arren, antza, egia da, Txikiren galdeketetan

parte hartu zuen polizia batek bere buruaz beste egin zuela.

Zelan heldu zen zuen eskuetara horren ezaguna egin den olerkia?

Ziegan zeukan paper apurrean idatzi zuen bere testamentu politikoa Txikik. Jatorriz, Ernesto Che Guevararenak diren olerkiak, oster, argazki baten atzealdean izkribatu zituen: «Bihar, ni hiltzen naizenean, ez etorri negar egitera. Inoiz ez naiz lurpean egongo, askatasun haizea naiz». Abokatuek ekarri zizkiguten biak, Jonek emanda ziegatik atera ostean. Oso erraza zen horrelakoak ateratzea.

Hilketaren erantzuleengandik damu-keinurik egon da 40 urtean?

Nik dakidala ez dute inolako damurik agertu nire anaia hiltzeagatik.

Ezta Espainiako Gobernuaren aldetik ere?

Ez. Gainera, egia esateko, nik behintzat ez dut holarik gura. Garai hartan jarduneko estatu-burua zen Juan Carlos Borboikoa, eta hilketengatik kondenatzea baino ez dut nahi. Nire anaia irailaren 27an hil zuten, goizeko 08:30ean, Sardañola del Valles o Norte herriko kanposantuaren ondoan zegoen argigune batean; Anjel Otaegi eta FRAPeke kide Jose Luis Sanchez Bravo, Ramon Garcia Sanz eta Humberto Baena egun berean tirokatu zituzten Espainiako geografiako beste toki batzuetan. Handik astebe-tera Oriente plazako balkoian agertu zen, Francogaz batera, Juan Carlos Borboikoa, fusilamenduak ospatzen. Bera eta heriotza-zigor sententziak izenpetu zituzten denak gizateriaren kontrako krimenengatik epaitzea nahi nuke.

Ematen du dena amaitu zela 1977ko Amnistia Legeagaz.

Lege horrek amnistia eman zien militarrei, enpresagizon boteretsuei eta urte haietan guztietan krudelkeriak egin zituztenei; preso gutxi batzuk kalera ateraziren. Aipatutako horien neurrira egindako legea izan zen. Hortaz, inork ez du ordainduko egindakoagatik. Hala ere, ez dituzte aintzat hartzen lege hori eman aurretik hil ziren denak, kontuan hartuak izateko eskubide osoa daukaten arren.

Zigorgabetasunaren Legea deitu izan diote batzuk.

EAJ, CIU eta Gobernuaren zeuden gainontzeko alderdiek isiltasun ituna egin zuten, militarrek urduri jar ez zitezen. Ondo lotuta utzi zuten dena.

Senideek zer eskatzen duzue?

Bidegabekeria horretan parte hartu zuten denak zigortzea baino ez dut eskatzen.

Urtero, irailaren 27an gogoratzen dituzte Txiki eta Otaegi. Zelan gura duzu gogora dezatela anaia?

Nire anaia, izan zen moduan gogora dezatela nahi dut; Euskal Herriaren independentziaren alde borroka egin zuen iraultzaile bat izan zen. Askok esaten dute frankismoaren kontrako borrokalari zela; baina ez zen hori bakarrik. Bere testamentu politikoan argi esan zuen: Euskadi libre, sozialista eta independentea aipatu zituen Txikik. Lehenik eta behin euskal independentista zen, eta gero, gerokoak. Herriaren alde hil zuten euskal independentista legez gogora dezatela nahiko nuke. ◀



Entrenamenduak irailaren akabuan hasi bazituzten ere, matrikulazioa ez dute itxi. © ERANDIOKO ATLETISMO ESKOLA

Erandioko Atletismo Eskolak ikasturtea zabaldu du, arrakastaz. Inoiz baino kirolari gehiago dauka: 85. Gainera, eskola-kiroleko taldea estreinatu dute Astrabuduan.

Erandioko Atletismo Klubaren eskola 1982an sortu zuten, Jose Bustinza ikastetxe erlijiosoan. Ikastetxea desagertu zen, baina eskola Bizkaiko beteranoena da gaur egun: 33 urte ditu.

Eratu zenetik ez da egon inoiz aurreten dagoen beste parte-hartzaile. Izan ere, marka da 85 atletak izena eman izana. Eta baliteke kopuru horrek

oraindik ere gorantza egitea, klubak matrikulazio-epea ez ixtea erabaki du-eta. Izandako arraskataren arrazoietakoa bat izan daiteke orain arte eskolak Altzagan izan duen eskola-kiroleko jarduna Astrabuduan bikoiztu izana. Horrek neska-mutil berri ugari erakarri du.

Beste motibazio gehigarri bat izan daiteke Erandioko Atletismo Klubak

krisi-garaian egindako eskaintza: aste biko doako proba ematen du, matrikula ordaindu aurretik. Epe horretan, norberak ikus dezake giroagaz gustura dabilen, ezelako konpromiso barik.

Erreserbarik ez

Baina, seguru aski, publizitate-kanpainarik garrantzitsuena izan da urteotan eskolako kideek egindako ahalegina, eta bertan sortu diren adin denetako atleten ereduak. Erandioko kirolariek makina bat diziplina praktikatzen dute. 5 eta 10 urte bitarteko neska-mutilek kros, abiadura-lasterketa, luzera-

jauzi eta *vortex*-jaurtiketan trebatzen dira. 10 eta 13 urte bitartekoek, ordea, proba gehiago dituzte aipatutakoez gainera: jauzi hirukoitza, altuera-jauzia, disko-, pisu- eta jabalina-jaurtiketa, eta martxa, besteak beste. Azken multzoa, 14 urtetik gorako atleta federatuek osatzen dute: gurago duten kirolean espezializatzen dira.

Juan Angel Lopez eskolako zuzendari tekniko eta sortzaileak laburbildu du eskolako adiskidetasun eta elkartasun giroa: «kirol honetan ez dago titularrik, ezta erreserbarik ere».

info+: Atletaerandio.com

Elkartasun-maratoia egingo du Australian Jon Salvadorrek

Datorren domekan, hilak 18, Jon Salvador atleta erandioztarrak elkartasun-maratoi bat egingo du antipodetan: Australiako Melbourne hirian. Salvadorrek lagunduta egingo du korrika: beragaz izango dira Xavi Maltas eta Javi Conde. Elkartasun-maratoiak ekimenari izena ematen dion atleta da Javi Conde.

Orain dela sei urte, Condek eta Salvadorrek elkartasun-proiektu bat abiatu zuten, eta Melbournen egingo dute proiektu horren azken aurreko etapa. Olinpiar eta Paralimpiar Jokoak hartu dituzten hiriak bisita-



Salvadorrek Erandioko Udalaren babesa dauka.

tu dituzte proiektuagaz 2009tik hona, horietan maratoiak egiteko. Melbourne ere egoitza olinpikoa izan zen, 1956an. Azken lasterketa, ordea, bere-

zia izango da: udaberrian Stoke Mandeville-n egingo dituzte 42,195 kilometroak. Ingalaterrako Buckinghamshire konderriko udalerri horretan asmatu zituzten Gorpil-aulki gaineko eta Anputatuen Munduko Jokoak, 1948an. Gerora, 1960an Erroman abiatu zituzten Paralinpiar Jokoetarako inspirazio izan ziren Stoke Mandevilleko jokoak.

Gizarte-etekina

Salvadorrek eta Condek 150.000 euro batu dituzte elkartasun-probetan, eta diru hori banatu egingo dute irabazteko asmo bako 90 elkarteren artean.

Leioako mendi-taldeak presidentea aukeratuko du laster

Leioa Mendi Taldeak ezohiko Bartzar Nagusia deitu du zapatu honetarako, urriak 17. Klubak jakinarazi duenez, bilkura bereziaren helburuak dira: hauteskunde-batzordea osatu, eta elkarteko presidentetza betetzeko hauteskundeak deitzea. «Gaiak duen garrantziagatik eta klubearen etorkizunean izango duen eraginagatik», ahalik eta bazkide gehien joatea eskatu dute. Gaur egun, Susana Ruiz del Campo da presidentea. Elkarrekin Sakoneta kiroldegian egingo du bilera, 17:00etan. Bazkideen gehiengoa agertuko ez balitz, bigarren hitzordu bat finkatu dute, ordu erdi beranduago.



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Egunero, 24 orduz

www.hiruka.eus





Iker Kamiruaga (eskuman, urdinez) txapela heltzen Finalaren aurkezpenean. © BIZKAIKO EUSKO PILOTA FEDERAKUNTZA

Txapela Dimara joan da

Iker Kamiruaga pilotari sopoloztarrak Baque esku-pilota sariaren finala jokatu zuen, pasa den barikuan, Durangoko Ezkurdi Jai-A-lai pilotalekuan. Zoritzarrez, ezin izan zuen etxera txapelagaz bueltatu, Ki-metz Zapiko dimoztarrak 22-19 irabazi baitzion gazteen kategorian. Kurene eskolakoak Patxi Ziskar taldeko arduraduna eraman zuen botilero.

Kadeteen lehian, berriz, Aimar Ibarloza markinarrak jantzi zuen sariaren 30. edizioako txapela, Josu Agirre-alloa garaitu ostean. Ikusleek frontoiaren hiru laurdena bete zuten.

Gazteen mailan, partidu gogorra jokatu zuten Iker Kamiruagak eta Ki-

metz Zapikok. Abantaila txikia hartu zuen hasieran Zapikok: 2-0, baina partidaren lehenengo zatian, Kamiruagak pilotagaz gozoago ibili zen, eta azkar-
txoago ateratzen zitzaion eskutik. Horri esker, 2-7 ipini zen markagailuan, aurretik.

Beheko jokoa

Partidan, aurrelari biek eman zuten joko gehiena lau t'erditik eta bosgarren koadrotik. Biak ala biak botera jokatzen hasi ziren, aire-jokaldi barik. Izan ere, hori zen Kamiruagaren estrategia: «pilota jaisten ahaleginduko naiz, eta ezkerrekoagaz zabaldu, Zapiko eroso egon ez dadin», abisatu zuen

aurretik sopoloztarrak. Halere, poli-ki-poliki dimoztarrak partidaren kokatu zuen bere burua, eta ondo jokatu barik ere, Kamiruaga urduritu, eta akatsak egitera bultzatu zuen presaren presaz. Halako batean, Kamiruaga erori egin zen, eta min hartu zuen belaunean.

Kontuak hala, Zapikok partidari buelta eman zion: 16-11. Ondoren, Kamiruagak ondo erantzun zion, baina aldiro-aldiro errematatzea falta izan zitzaion. Arriskatzeari ekin zion, eta batzuetan, arerioari tantoa eman zion horrela. Ostera, 18na eta 19na berdintzea lortu zuten. Azkenik, baina, Zapikok egin zituen hiru tantoak (22-19), eta berak jantzi zuen txapela. ◀

Tenislari profesionalik onena: Jorge Mir

Datorren urriaren 24an, Jorge Mir Jolaseta klubeko tenis-zuzendaria jasoko du aurtengo RPT Teniseko Erregistro Profesionalaren Saria: tenis-munduko profesionalik onena izendatzen du. Ekitaldia Valentzian izango da. Sariduna erabakitzeko, kontuan hartu dute Mirrek tenisaren alderdi denetan izandako ibilbide profesional oparoa, eta, bereziki, Neguriko Jolaseta klubaren zuzendaritza teknikoan egindako beharra. RPT erakundeak 26 urteko ibilbidea dauka, eta 75.000 entrenatzaile baino gehiago prestatu ditu denbora horretan. Sari ospetsu hori, 2009az geroztik ematen dute. ◀

Jorge Camiña, bigarrena mundu mailan

Jorge Camiña tenis-jokalari beterano getxoztarra bigarren geratu da Munduko Banakako Txapelketan, 65 urte-tik gorakoen kategorian. Proba Kroaziako Umag herrian egin zen, pasa den urriaren 4an, eta Camiñak kontatzen duenez, «finala jokatu nuen, eta Bruno Renoult frantsesaren aurka galdu nuen. Renoultek nik baino 3 urte gutxiago dauzka. Bera munduko txapel-dun eta profesional ohia da». Ostera, harro agertu da Camiña: «Bigarren garaitu nau Renoultek; 5 aldiz garaitu dut nik bera. Halere, uste dut egin beharrekoa egin dudala beteranoen tenisean». ◀

DACIA DUSTER
10.500€-tik aurrera

5 urteko BERMEA

Izan ARGIA. Eros ezazu Dacia bat.

BILBO BERRI Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com
LEIOA BERRI AUTO Iparragirre Hiribidea, 94. Tel. 94 480 42 90. LEIOA www.renault.es/concesion/leioaberri



Pasa den maiatzean lortu zuen Plazaolak Bizkaiko txapela, Berriatuan jokaturako San Gregorio Sarian.

«Euskaltelekoek piztu zidaten bizikleta-grina»

Ander Plazaola Zabala txirrindulari algortarra pasa den hilean jaitsi zen bizikletatik, lehia-mailan.

INIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Plazaolak 23 urte dauzka, eta kazetaritza-ikasketak egin ditu. Besteak beste, aurtun Bizkaiko txapelduna izan da, eta 2013an Euskal Herriko txapeldunordea, 23 azpikoen kategorian. Euskadi Fundazioa eta Lizarte txirrindularitza-taldeetan jardun ostean, irailaren 15ean amaiera ipini zion kirol-karrerari, Altsasun. Eskoziara joatear da, ber-

tan hainbat hilabetez lan egin eta ingelesa ikasteko.

Zelan hasi zinen txirrindularitzan?
Txikitatik beti gustatu izan zait bizikle-

“ Bizitzan beharrezkoak diren balio asko ikasten dira kirola eginez ”

tan irtetea, eta urtero joaten nintzen lehengusuakaz Pirinioetara, Frantziako Tourra ikustera; asko gustatzen zitzaidan! Halako batean proposatu zidaten herri ondoko taldean haiekaz apuntatzea, probatzeko. Garai hartan

futbola eta esku-pilota ere egiten nituen, baina erabaki nuen probatzea, eta gustatu zitzaidan. Besteak utzi, eta 11 urte egin ditut txirrindularitzan.

Euskaltelek markatu zintuen?

Bai. Mayo, Laiseka, Zubeldia... Horrelakoek piztu zidaten grina bizikletan ibiltzeko. Haiengatik hasi nintzen.

Roberto Laiseka algortarra.

Egia da, bai. Ezagutu nuen, eta berak eta besteek piztu zidaten gogoia.

Zein da 11 urte horietatik estima handienagaz gogoratzen duzun unea?

Bat hartzea gaitza da. Kontuan hartuko nituzke urte horietan denetan eza-gutu ditudan jendea eta giroa; oso ona

da giroa. Jende asko ezagutzeko eta lagunak egiteko parada eman dit bizikletak, eta horregaz geratzen naiz.

Miguel Madariagak HIRUKAn esana du «burua ondo jantzita» duzula, txirrindularitza-grina izateaz gainera.

Kar, kar, kar. Nik bezala, askok. Argi neukan bizikletatik bizitzea oso zaila dela, eta lesio batek edozein unetan lasterketak egitetik kanpo utzi ahal zaituela. Horregatik, beste aukera bat bilatu dut ikasketen bidez. Beste ibilbide bat, bizikletarena txarto ateratze-kotan. Eta saiatu izan naiz, ahal nuen heinean, ikasketak jorratzen.

Zer dela-eta alboratu duzu bizikleta?

Hamaika urteren ostean, aurtengoa zirt edo zartekoa izango zela erabaki nuen: profesionaletara pasatuz gero, jarraituko nuen, eta pasatu ezean, utziko nuen. Ultimatutzat hartu nuen, eta, azkenean, ez dut zorterik izan, egoera dena delako.

Murias taldeko kideei inbidia diezu?

Bai. Euskal Herrian hiru talde profesional daude. Movistarrera eta Cajara joatea ia ezinezkoa da: Movistarrek urtero afizionatu bakarra hartzen du, eta Caja Ruralek hartzen dituenak bere filialekoak dira. Muriasen ere jende asko dago, euskal herritar asko, eta lekuak, oso gutxi. Taldea kontinentala da, eta ez dago egoerarik hoberenean ere. Niretzat ez da lekuri egon, eta pena da horra ez joan izana.

Zer asmo dituzu etorkizunerako?

Nire asmoa da kirola egiten jarraitzea, nire kabuz. Bestalde, urriaren 25ean Edinburgora noa. Aprobetxatu gura dut bizikleta dela-eta egin ez nituen gauzak egiteko. Hara noa ingelesa hobetzera eta lan egitera, eta bospasei hilabeteko esperientzia bizitzera.

Zer esango zenieke neska-mutilei?

Animatzeko kirola egiten. Uste baino gauza gehiago lortzen da, fisikoki eta mentalki: lagun berriak, elkartasuna, sakrifizioa... bizitzan beharrezkoak diren balio asko ikasten dira. ◀

I

Inaki Bitxitegia

MONTBLANC, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

GAVRKO



**GIZONENTZAKO
MODA**

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

Jarrai gaitzazu:



hirukaEus



@hirukaEus

www.hiruka.eus

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. **NON** eta **ZERI** ateratakoa den badakizu?



Musiketan zikloa

Eleanor McEvoy

abeslariaren kontzerturako

5 sarrera bikoitz dauzkagu, Producciones Serranoren ekimenez.

Urriak 23, 20:00, Kurtzio kultur etxea (Sopela)

Urriaren 20a baino lehen, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak, eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zorion agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



IÑIGO
ERANDIO
Familia eta lagunaren partez

Zorionak Iñigoooo!!! Segi zarena izaten urte luzez!!! Ederto ospatu eta lagunekin gozatu! Muusuak!



IBONE
ALGORTA
Familiaren partez

Zorionak, Ibone! Primerako eguna izan dagizula opa dizugu! Gozatu! Pote batzuk hartzen gonbidatuko gaituzu, ezta? Muxu handi-handi bat eta besarkadarik beroena!



CARMEN
LEIOA
Birbiloben partez

Zorionak, amuma! Mosu handi eta busti bat Maddi eta Jareren partez, eta ederto ospatu zeure eguna familiagaz. Maite zaitugu!

Sudokua

	4							2
7		1				6	4	
					6		5	8
	7							3
3			8					
9				2	4			
8		5					1	6
	3		5		8			
				6				

Gogoan hartu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

5	3	8	2	9	6	7	1	4
7	2	4	8	1	5	6	3	9
6	1	9	7	3	4	5	2	8
1	9	7	4	2	3	8	5	6
4	6	5	1	7	8	2	9	3
3	8	2	5	6	9	4	7	1
8	5	1	9	4	7	3	6	2
6	4	9	3	5	2	1	8	7
2	7	3	6	8	1	9	4	5

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Gauetz inspirazioa datorrela esaten dute, baina bakarrik lanean bazabiltza. Eta gaua unerik onena da atsedena hartu eta lo egiteko; ez ahaztu.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Etetik irteten zarenean, begiratu ea dena amatu duzun. Bestela, egunen batean ezusteko txarren bat izango duzu. Hobe aurreikustea!



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Kontuz ibili azal gogorreko frutakaz. Ez hartu labana arinkeriaz, ebaki politen bat egitea gura ez baduzu.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Pertsona interesgarri bat ezagutuko duzu aste honetan. Berba politik erabiltzeaz gainera, bihotz onekoa izango da.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Zentzu bako agin duak jarraitzeak haserretu eta lelo sentiarazten zaitu? Bada, birritan pentsatu. Zer gertatuko litzateke, kasu egin ezean? Zeuk erabaki.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Datozen egunotan asper-asper eginda amaituko duzu, ikastetxera bazoaz. Ez kexatu gero, HIRUKAK iragarri baitzuen.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Apusturen bat egin behar baduzu, hau da zure askea. Zortea zure alde egongo da. Halere, beti ez da izango espero duzun moduan.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Lan-eskaintza ona helduko zaizu, baina, zoritxarrez, ez da zuretzat egokia izango. Gogoan izan itzazu zure lagunak.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Aitor egizu: zuk ere desfilea ikusi zenuen. Lasai, jakin-minagatik, ondo informatuta egoteko eta beste hainbat aitzakiagaz, gehienek ikusi zuten-eta!



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Lanera gogoz eta prestasunez joateko moduan zaude. Lantegiko giroa hobetuko da datozen egunotan, eta lan-karga eroangarriagoa izango da.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Katuak saguakaz zelan, hala zabiltza jokatzen zure lagunaren sentimenduakaz. Bada garaia lagun ona izan, eta lasai utz ditzazun.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Azken berba dioenak ez du beti arrazoia izaten, baina altuen oihu egiten duenak baino arrazoi gehiago bai.



ALLWORLDTOWNS.COM

Placentia

Plentziarrek Amerikan sortutako hirigunea, balea ehizatzeke



Sabino Laucirica historia-zale plentziarra Kanadako Placentia eta bere sorterriaren arteko loturak ikertzen hasi zen orain dela 10 urte. Lortutako emaitzen ondoren, Kanadako herri horrek *Heritage Award* saria eman dio, «ahaztuta zuten historia gogorarazteagatik».

IKER RINCON MORENO

Bizkaiko jaurerrian portu gehiago sortzeko asmoz, Diego Lopez Harokoa Bizkaiko jaunak Plentzia birsortu zuen, 1299an; urte batzuk lehenago bere aitita Lope Diazek Gaminizen sortutako herrian bertan. Placentia de Butron izan zen bere jatorrizko izena, eta hala ezagutarazten zuten XVI. mendera arte.

Hiribildua sortu zenetik, arrantza izan zen historikoki bertakoen jarduera ekonomiko garrantzitsuen. Hala ziurtatzen du herri horren hiri-gutunak: «*et terminos para ballenas matar del agua que corre por medio de Barquero fasta Portugalete: que podades poner guardas et tener buestras galeas, do mas quisieredes*». Hau da, dokumentu horrek baleak arrantzatzeko pribilegioa ematen zien Plentziako arrantzaleei, Bakiotik Portugaleterainoko itsas eremuan. Horrez gainera, herritik gertu dagoen Isuskitz mendia eman zion Bizkaiko jaunak hiribilduari, bertako egurragaz itsasontziak eraikitzeko.

Balea ehizatzeke ohitura X. mendean hasi eiz zen. Antza, Euskal Herriko kostaldean balea asko zegoen, eta lehorreratzen zirenak kontsumitzen hasi ziren. Ondoren, baleak sortzen zuen aberastasuna ikusita, ehizatzeari ekin zioten. Hasiera batean, kostaldetik hurbil arrantzatzen zituzten, baina XV. mendean gero eta eskasagoak ziren, eta itsasora irteten hasi ziren, Ternuara heltzeraino, besteak beste.

Sabino Laucirica plentziarra euskaldunek Amerikan sortutako lekuak aztertzen zebilela, *Vivencias de los vascos en America* liburuan, guneetako batek Placentia izena zuela ikusi zuen, Kanadan. Horren jakitun, herri hori Plentziako itsasgizonek sortu zezaketela pentsatu, burua martxan ipini, ikerketa abiatu, eta haritik tiratzen hasi zen. Hala, txosten artean murgildu, eta Placentiako jendeagaz harremanetan

Hasiera batean, Placentiako herritarrek ez zioten kasurik egiten Lauciricari, herria nork sortu zuen esaten zuenean

ipini zen. Placentia Ternuako hiriburua izan zen, balea-ehiztariak bertan egon ziren garaian, 1562tik eta 1713an Utretcheko Ituna sinatu arte, Lauciricak azaldu duenaren arabera.

Placentia, plentziarrek sortua

Hasiera batean, bertakoek kasurik ere ez ziotela egiten aitortzen du Lauciricak; hala ere, apurka bidali zizkien datu eta frogak, eta ondoren, «amore eman, eta onartzen hasi ziren gure arbasoak izan zirela Placentia hori sortu zutenak», dio Lauciricak. Hala,

orain dela 10 urte hasitako ikerketen ostean, Ternuako Placentia plentziarrek sortu zutela frogatzeaz gainera, *Placentia Area Historical Society*-k euren ondarea zaintzegtatik ematen duen saria eskaini zioten plentziarrari: *Heritage Award* saria. Era berean, Plentzia eta Placentia senidetu egin dira, eta euren banderak ikus daitezke herri bietako udaletxeetan, Unai Basurkori esker, Ternuara egindako bidaian garraiatu baitzituen ikur biak.

Ikerketak hamar urte iraun zuen: Placentiako herritarrek berriktaldia, dokumentuen bilaketak, historialariakaz berbaldiak... Bide horretan, Lauciricak hainbat datu eta dokumentu aurkitu zituen. Zaharrena Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan aurkitu zuen: Domingo Luzakoaren testamentua da, 1563koa. Itsasgizon hori Hondarribikoa zen, eta *Nuestra Señora del Juncal* itsasontzian heldu zen Placentiara. Hiltzeko zorian zela, han lurperatzeko agintzen zuen dokumentu horretan. Hala, datu horregaz, garai hartan Placentian euskal arrantzaleak lurperatzeko hilerria zegoela pentsa daitekeela uste du historia-zaleak. Horren harira, euskaraz idatzitako hainbat hilarri ere aurkitu ditu Lauciricak hango hilerrian; horien artean, zaharrena: Gannis Saleko Celariarena. Gaur egun, pieza hori O'Reilly House Museoan dago, eta honakoa irakur daiteke harrian landuta: aurrealdean, «*Dahemen hilai o mai 1, 1676 JHS*»; eta atzealdean, «*Gannis de Sale Celaria, Usanno neneco semea*». Lauciricak dioenez, Amerikan dagoen euskarazko inskripziorik zaharrena da hori.

Plentziarrei dagokienez, 1726ko dokumentu bat aurkitu du Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan. Horren arabera, Juan Jose Goitia izeneko gizon batek 215 gizon errekrutatu behar zituen armadarako.



Euskal arrantzaleak lurperatzen zituzten hilerria, gaur eguneko irudia. © S. LAUCIRICA



Gannis Salekoa arrantzalearen hiliarria, O'Reilly House Museoa. © S. LAUCIRICA



Euskal balea-ehizariak Pasaiaiko Albaola Museoa, birprodukzioa. © S. LAUCIRICA



Unai Basurko eta Pakea Bizkaiaiko tripulazioa Placentian banderak trukatzeko. © S. LAUCIRICA

Plentziara heltzean, ordea, ia gizonezkoak ez zegoela konturatu eta agindua eman zionari erantzun zion ezin zuela misioa bete, «gizon guztiak Ternuan arrantzan zebiltzalako». Idazki hori ezezaguna izan da orain arte, eta horregaz, Lauciricak erakutsi egin du bizkaitarrak ere bazihoazela Ternua aldera. Izan ere, «orain arte egindako ikerketen arabera, uste zen egitandi horretan gipuzkoarrek bakarrik parte hartzen zutela, eurek bakarrik ikertu dutelako horren inguruan», adierazi du plentziarrak.

Azkenik, Euskaltzaindiak jaso dituen toponimoen artean bilatuta, bertan agertzen den informazioaren arabera, Gaminizen sortutako hiriguneari Placentia izena eman zioten, «bertokoek Ternuan aurkitutako tokiari jarritako izen berdina». Lauciri-

Francis Baconek zioenez, Espainiak aberastasun handiagoa lortu zuen baleen olioagaz, Peruko urreagaz baino

caren ustean, bertokoek izen bera ipini zioten, leku bien antzagatik edo.

Balea-ehizaren enpresa

Plentzia eta Placentiaren arteko loturak aurkitzeaz gainera, garaiko arrantzaleen bizimodua zer-zelakoa zen ikertu du Lauciricak. Horren arabera, baleak ehizatzeako enpresa 1530ean hasi zen; «euskaldunek taldean aurrera eroandako egitandirik garrantzitsuena izan zen», azaldu du. Urtero, udaberrian 20-30 itsasontzi irteten ziren euskal kostaldetik Ternuarako

bidean, 2.000-3.000 pertsonagaz, eta bost asteko bidea egiten zuten Kanadara ailegatzeko. Negura arte egoten ziren han, balea eta bakailaotan. Ipar Atlantikoko sardako baleak ehizatzen zituzten, Mexikoko golkotik Groenlandiara bideko migrazioan zebiltzala. Balea bakoitzagaz 200 litroko 10 kupel betetzeko olioia lortzen zen, eta itsasontzi bakoitzak 1.000 kupel eroaten zituen; hala, 10 balea behar zituzten itsasontzi bat betetzeko. Lauciricak aipatu duenez, «Francis Baconek esan zuen Ternuako arrantzak aberastasun gehiago ekarri ziola Espainiari, Peruko urreak baino». Izan ere, balearen olio-kupel bakoitzak 5.000 euroko balioa zuen, «izugarritzko aberastasuna ekartzen zuen horrek». Balio hori kontuan hartuta, norgehiagoka ugari sortu ziren Ternua inguruan. Hala, 1713an Utrechtcheko Itunaren ondorioz, Ingalaterrak eta Herbehereek euskaldunak kanporatu zituzten inguru hartatik. Halere, Lauciricak aurkitutako hainbat dokumenturen arabera, Espainiak eskubide batzuei eutsi zien ur haietan arrantzan egin ahal izateko. Aurkitutakoaren arabera, ingelesek ez zituzten eskubide horiek errespetatzen, adib.: euskaldunek arrantzatzeko zituzten zailtasunen berri eman zioten Monteleongo Markesari, Indietako Batzordean zegoenari, 1715ean.

Hala ere, balearen ehiza masiboa XVI. mendearen amaieran amaitu zen, «Armada Garaiezinaren 1588ko porrotaren ondorioz, gure ontziak babes barik gelditu zirelako, eta arrantzan egiteko kala agortu zelako», azaldu du plentziarrak. Emandako datuen arabera, 1530 eta 1600 artean 20.000 balea baino gehiago ehizatu zituzten ur haietan. Oostera, euskal arrantzaleek bertan arrantzan egiten jarraitu zuten, XX. mendearen erdialdera arte. ◀



Sabino Laucirica (Plentzia)

Merkataritza-nabigazioko kapitaina da lanbidez; historialari dabil, oostera, azken aldian plentziarra. Kanadako mapa batean Placentia izeneko herria aurkitu ostean, horren inguruan ikertzen hasi zen, eta *Heritage Award* saria ere jaso du, bertako ondarea sustatzeagatik. Bere hurrengo egitasmoan, Unescok herri hori Gizadiaren Ondarea izendatzea lortu gura du.

Flashback

Goierriko eta Mendietako neska-mutilak, 1932 inguru

Barrikak eta Sopelak bat egiten duten inguruko neska-mutilak dira Bargazkikoak, Goierri eta Mendieta aldekoak. Bene Markaidak kontatu digunez, «okasioa, San Juan Degollao eguna, abuztuaren 29a. Abarketak ondo lotu eta Gaztelugatxera oinez joateko elkartu ziren, Josemari Ubillos Gardoki baserriko semea lagun eta soinulari zela. Guztiek paineluak lepoan; neskek, berriz, mutilen txapelak buruan. Talde eder honetatik bikoteren batzuk sortu ziren; haien seme-alabak, errespetuzko aitite-amomak gaur egun, Sopelan eta inguruan bizi dira».

Goian: Anton Artegi, Ramon Oiarbide, Adolfo Zeanuri, Miguel Etxebarria, Isidro Arrasate...

Erdian: Bernarda Bilbao, Antoni Artolozaga, Antoni Etxebarria, Teresa Elordui, Juanita Lekanda, Eulalia Elordui, Juanita Landea, Fani Saez de Buruaga, Matilde Bilbai, Ansoleaga, Milagros Artolozaga eta beste sopeloztar bat.

Behean: Alberto Zeanuri, Juan Oiarbide, ?, Josemari Ubillos, etab.



© BITORI ELORDUIK JUANITA GARAIRI UTZITAKO ARGAZKIA



Uribitakora

TESTUA

Galder Bilbao Martinez *Txapi*

DOINUA

Lide dantzara, Hodei frontoira

ARGAZKIA

Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu?

Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Algortako Hezetasuna bizirik!

Ipuin triste bat zabaltzen dabil, benetakoa ta serioa, azken mendean horrela izan da ortu-landen jarioa. Etxekoentzat biltzen fruitua jakiak ta azenarioa, baina aginte eta sirbiente bilakatuz arerioa. Hezetasuna ortuen bizitza haxe da bere istorioa.

Baserritarra ta auzokidea hortik dabil aspalditik, goiz ta arratsalde, eguzki ta euri inori kalte egin barik. Txanponek triste kolorea dute grisa hedatu nahian handik, nahiz eta etxe hutsak badauden ez dago berrien beharrik. Ta bitartean, uzta gixaja sasi artean ezkutaturik.

Istorioan bada baserritarra beti oztopo ta itsusi, agintaria beste aldean boterea behar du luzi. Etsai arrotza ez da faltatzen bere kuartela eta guzti. Nahiz ta eguzkiak gogor jotzen du gizartea busti ta busti; etsai berdea boltsan eraman zelaia bizitzen utzi!



Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua